

**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN GAINEKO
ERAKUNDEEN JOKABIDEARI BURUZKO
GOMENDIOAK ETA
HOBETZEKO PROPOSAMENAK**

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiko
lan-taldea

2008ko abenduaren 15eko osoko bileran aurkeztuta
2009ko apirilaren 24ko osoko bileran onartuta

Aurkibidea

	Or.
Aurkezpena.....	4
Hitzaurrea.....	6
Metodologia.....	7
A MULTZOA	
Emakumearen aurkako indarkeriaren prebentzioari buruzko gomendioak.....	10
A.1. Prebentzioko jokabidearen testuingurua.....	11
A.2. Lehen mailako prebentzioa.....	21
Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduera orokorrari buruz	
Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren jarduerari buruz	
Bestelako erakundeen jarduerari buruz	
B MULTZOA	
Indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntzari buruzko gomendioak.....	26
B.1. Indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko gizarte zerbitzuen hobekuntza	27
B.1.1. Indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko gizarte zerbitzuen programak kudeatzeko egitura Bizkaian.....	28
Bizkaian etxeko tratu txarren biktima diren emakumeak babesteko berariazko baliabideei buruz	
Indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta egiteko Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzu eta programen zentralizazio/deszentralizazioari buruz	
B.1.2. Indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko zerbitzuak Bizkaian.....	34
Lotutako arazoak dauzkaten emakumeentzako babesari buruz	
Emakume taldeek egiten duten baliabideen erabilera mailari buruz	
Denboran harrera emateko baliabideen egonkortasunari buruz	
Dauden baliabideen hedapen handiagoari buruz	
Hobetzeko azterketari buruz	
B.2. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu bilketaren hobekuntza.....	40
B.2.1 Datu bilketa erakundeetan.....	42
Emakumeen aurkako indarkeriaren kontzeptualizazioari buruz	
Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak erregistratzeko ohikuntzari buruz	

Emakumeen aurkako indarkeria kasuei buruzko datuak gizarte zerbitzuen eremuan jasotzeko fitxa bateratua betetzeari buruz

B.2.2. Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokitik lurralde mailan eskuratu beharreko gizarte datuak.....	46
BGIBren lurraldeko datu bilketarako fitxaren erabilera eta hobekuntzari buruz	
BGIBren lurraldeko datu bilketaren prozesuari buruz	
B.2.3. BGIBtik lurralde mailan eskuratu beharreko bestelako datuak.....	49
B.3. Profesionalen prestakuntza emakumeen aurkako indarkeriari buruz.....	50
B.3.1. Prestakuntza erakunde publikoetako giza baliabideen kudeaketari buruz.....	52
Langileen hautaketari buruz	
Programa, zerbitzu eta prestazioen kontratazio, hitzarmen edo itunei buruz	
Langileen trebakuntza eta prestakuntza birziklapenari buruz	
B.3.2. Prestakuntza ekintzei buruzko alderdi orokorrak.....	55
B.4. Erakundeen arteko koordinazioa.....	57
B.4.1. Koordinazio eta ezarpen orokorrari buruzko protokoloak	
B.4.2. Tokiko koordinazio eta ezarpenari buruzko protokoloak	
B.4.3. Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren jarduera	
 C MULTZOA.	
Gomendioen laburpena.....	69
 Erreferentzia bibliografikoak.....	78
Eranskina: Prozesuaren kronologia (2008).	

Aurkezpena

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia honako asmoarekin jaiotako da: Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen aurkako indarkeria egoerei buruzko errealitatea, eta haien bilakaera ezagutzea, gertatutako aldaketak aztertze asmoz; eta Bizkaiko genero indarkeriaren eremuan eragiten duten zerbitzu eta prestazioen eskaintzan hobekuntzak sustatu nahi dituzten gomendioak eta proposamenak egitea. Horiexek dira erakundea sortzeko martxoaren 18ko 53/2003 Foru Dekretuko 2. artikuluan jasotako helburuak.

Behatokiaren 2004-2008 Lan Planak helburu horiei erantzun dieten ekintzen programazioa jasotzen du, eta horretarako dekretuan esleitzen zaizkion funtzioak dira erreferentzia.

Bere ibilbidean, Behatokia lurraldean emakumeen aurkako indarkeria egoerei erantzuteko eskuragarri dauden baliabideei buruzko informazioa, eta jarduera eremu guztietan emandako erantzun bolumenari buruzko datuak jasotzeko erakunde iraunkorra izan da. Horretarako, Behatokiaren osoko bilkurak, 2004ko urriaren 22an, adierazleei buruzko lan-taldea eratzea onartu zuen eta, 2005eko urtarrilean lanean hasi zenetik, lan-talde horrek informazio hori biltzen duten agiriak prestatu ditu urtero: "*Genero indarkeriaren egoerari erantzune buruzko zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan. Gizarte babesaren, Poliziaren eta Justiziaren arloak*" eta "*Laguntza juridikoa, laguntza psikologikoa, familietan esku-hartze espezializatua eta babesa etxean indarkeria jasaten duten emakumeentzat. Foru Aldundiaren, udalerrien eta mankomunitateen baliabideak Bizkaiko Lurralde Historikoan*".

2008ko urtarrilaren 10eko osoko bilkuran, lan-talde horri Bizkaiko genero indarkeriaren eremuan instituzioen jokabidea hobetzeko gomendioak egiteko eskatu zitzaion, Behatokia den etengabeko informazio sistema eraikitze bere ibilbidean pilatutako ezagutzan, eta osatzen duten instituzioen artean sortutako sinergian oinarrituta.

Jarraian datozen orriotan Behatoki honetako adierazleei buruzko lan taldeak 2008ko otsailetik urrira aginduari erantzuteko egin dituen hausnarketak bildu dira, eta horrela azaroaren 14ko bileran txosten hau onartuta prozesua bukatutzat eman da.

Hausnarketok Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan hobekuntza horretarako indarrean dagoen instituzioen arteko koordinazio orokorreko esparrura etengabe joz burutu dira. 2001etik esparru hori *Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko hitzarmena* delakoak definitu du, eta egun, 2008ko maiatzaren 28ko Akordioaren Jarraipen Batzordeak onartutako *Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko bigarren hitzarmena* administrazio izapidetzeko azken fasean dago.

2008ko azaroa

Hitzaurrea

Txostena bi gai multzo nagusitan dago egituratuta; multzook indarkeriari aurre hartzeko arloari eta indarkeriazko ageriko egoerei erantzuteko arloari buruzko gomendioak biltzen dituzte.

Prebentzioaren trataerak lehen mailako prebentzioaren ikuspegiari –arazoaren agerpena saihesteari begira- ematen dio lehentasuna, prebentzioko bestelako jokabide mailak gainontzeko agiriko hausnarketetan lantzen direla uste baita.

Laguntzaren eremuan, era berean, lau hausnarketa arlo jasotzen dira: indarkeria jasan duten emakumeentzako laguntza zerbitzuak hobetzeari buruz; emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuen bilketa hobetzeari buruz; profesionalak emakumeen aurkako indarkeriari buruz prestatzeari buruz; eta arlo horretako erakundeen arteko koordinazioari buruz.

Arlo bakoitzak sarrera eta gomendio moduan aurkezten den hausnarketa kokatzen den garapena dauzka.

Hirugarren atalak, dagozkion epigrafeen pean, arestiko ataletan argudiatutako gomendioen laburpena jasotzen du.

Agiria ixteko, bibliografia eta gomendioak egiteko lan-taldeak jarraitutako ibilbidea zehazten duen eranskina datoz.

Metodologia

Arestiko ataletan jaso bezala, txosten hau ekarri duen prozesua Behatokiaren osoko bilkura Adierazleei buruzko lan-taldeari Bizkaiko genero indarkeriaren eremuan eragiten duten zerbitzu eta prestazioen eskaintzen hobekuntza sustatzeko proposamenak egiteko eskatzerakoan hasten da.

Ohar horiek egiterakoan, batez ere foru erakundearen jokabideari eta gizarteko esku-hartze arloari begiratu bazaio ere, gobernuko zein tokiko bestelako instituzio mailei dagozkien alderdiak ere aintzat hartu dira. Bestalde, prozesua Behatoki honentzat prozesua burututako jokabideari, hortik etorritako hobekuntzarako aukerei, eta ildo horretan konpromisoak ezartzeari buruzko barneko hausnarketarako ariketa izan da.

ADIERAZLEEI BURUZKO LAN-TALDEA-BGIB:

- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Lan eta Prestakuntza Saila.
- Bizkaiko Foru Aldundiko berdintasun eta herritarren eskubideen zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Barne Saila
- Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila
- Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila
- Emakunde
- EUDEL: Gernika-Lumoko udala eta Bilboko Udala/ Ermuko Udala
- AUZOLAN arreta psikosozialeko modulua
- ARGITAN emakumearen aholku elkartea

Lanari hiru fasetan ekin zaio:

1. fasea: Eskema kontzeptualaren definizioa

Lehenengo fase honetan gomendioak egiteko lan-taldearen hausnarketa prozesuaren lehenetsuna izango diren gaiak ezarri dira, eremu orokor bi ezarriz, zeinek, aldi berean, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko kontuetan euskal herri administrazioen jokabidearen plangintza orokorra zuzenduko duten¹:

- Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa, eta
- Indarkeria jasaten duten emakumeentzako laguntza; landu beharreko azpi-arloak honakoak dira:
 - indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko gizarte zerbitzuen hobekuntza
 - datu bilketaren hobekuntza
 - profesionalen prestakuntza
 - gaiari buruzko erakundeen arteko koordinazioa.

Haietako bakoitzari heltzeko oinarritzko irizpidea gizarte eremuari mugatzea izan da, eta jokabide instituzionaleko bestelako eremuei (polizia, justizia...) lotutako gogoetak eremuen artean gertatzen den koordinazioaren eta erlazioaren ikuspegitik heltzea erabaki da.

Hautaketa lan-taldearen ahalmen eta osaketan oinarritzen da, ordezkari gehienak gizarte zerbitzuen arlotik baitatoz, baita Behatokia foru erakundearen Gizarte Ekintza Sailari atxikita dagoelako ere. Hausnarketak gizarte eremuan ardazteak ezarritako proposamenei lotura estuagoa eta, haiek gauzatzeari begira, etorkizun handiagoa ekarriko dizkiela uste da.

Era berean, fase horretan, eskuragarri dauden lehen eta bigarren mailako iturriak, arautegia eta emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan erakundeen jokabidea artikulatzen dituzten administrazio akordioak (azkenak, prozesu guztian erreferentziako esparrutzat hartuta) hausnarketarako oinarritzat jotzen dira, eta adostasun profesionala azterketa eraikitzeko irizpide gehigarri bezala eransten da.

¹ EAEko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako IV. plana, VIII. legealdiko jarraibideak

2. fasea: Bilera monografikoak

Ibilbidearen bigarren fasea, denboran gehien luzatu dena, hautatutako arloei buruzko bilera monografikoek osatu dute. Haietan, lan-taldeak, oinarrizko agiri baten aurkezpenetik abiatuta, batera hausnartu eta agiriari proposamenak eta argudioak ezarri dizkio, eta horrela prozesuan gaiaren araberako tarteko eta azken agiriak sortu dira; agiriok prestatzea laguntza izan da gomendioak sortzeko eta eratzeko.

Guztira, lan-taldeak urtean 12 bilera egin ditu asmo horrekin. Prozesuaren kronologia txosten honetako eranskinean zehaztuko da.

3. fasea: Azken agiriaren prestaketa

Azken fasea azken agiria prestatzea eta diseinatzea izan da; agiri horrek arestiko fasean landutako gai multzoei heltzerakoan sortutako informazioa biltzen du.

A MULTZOA

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN PREBENTZIORAKO GOMENDIOAK

Prebentzioko jokabidearen testuingurua
Lehen mailako prebentzioa

A.1. JOKABIDE PREBENTIBOAREN TESTUINGURUA

A.1.1 Prebentzioaren kontzeptua eta mailak

Prebentzioari heltzeko erreferentzia klasikoa, bai maila teorikoan bai praktikoan, 1964an Gerald Caplanek garatu zuen eredua da; Caplanek, komunitatearen buruko osasunaren arloaren baitan, prebentzioaren lehen sistematizazioa burutu zuen, eta bertan hiru jokabide maila bereizi zituen:

1. Lehen mailako prebentzioa: herritarrengan arazo bat agertzeko probabilitatea murriztera zuzendua, arrisku faktoreak zuzenduz eta aurre egiteko norberaren trebetasunak indartuz.
2. Bigarren mailako prebentzioa: herritarrengan arazo baten nagusitasuna (kasu kopurua) murrizteari zuzendua, arazoaren identifikazio goiztiarra ziurtatuz eta esku-hartze azkar eta eraginkorra bilatuz.
3. Hirugarren mailako prebentzioa: arazoaren ondorioak murriztera eta berritzeak saihestera zuzendua, kaltetutako pertsonak osatzeko programak bideratuz.

Literatura espezializatuaren arabera², etxeko indarkeriaren eremuan, **lehen mailako prebentzioko programa** honela definituko litzateke:

"Herritarrak familiako gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko moduak hartzeko eta haiei eusteko informatu, bultzatu eta lagundu, familia funtzionatzeko eredu demokratikoagoak eman eta arrisku testuinguruetan helburu horiek errazteko behar diren aldaketen alde egiten duen prozesua, lan prestakuntza eta ikerketa norabide berean zuzenduz".

Era berean, **bigarren mailako prebentzio** programa honakoei heltzen die:

"Herritar ahulenei zuzenduta, arazoa goiz identifikatzeko baliabideak eta gizarte babes eraginkor eta eskuragarria emango dizkieten esku-hartze estrategiak. Haren barruan baliabide profesionalak eta komunitatearen eragileak (hezitzaileak, osasun langileak, polizia, agente judizialak) arazoa behar bezala uler dezaten eta biktimizatzaileak ez diren neurriak bidera ditzaten berregituratzea sartzen da".

Azkenik, **hirugarren mailako prebentzioa** honetan datza:

"Arazoa jasaten duten herritarrek behar bezalako erantzun mediko, psikologiko, sozial eta legala izateko laguntza-baliabideak ziurtatzea. Haren barruan biktimak babesteko neurriak eta biktimei eta erasotzaileei laguntzeko programa espezializatuak sartzen dira".

² ECHEBURUA, ENRIQUE eta CORRAL, PAZ DEL, (1998) *Manual de violencia familiar*, Siglo XXI de España Editores, Madril, (176-188. or.).

A.1.2 Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko tresna juridiko eta programatikoak

Nazioarteko esparruan

Nazioarteko esparruan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako esku-hartzearen arloan, indarkeriaren arazoari heltzen dion tresna eta ekimen sorta handia dago. Gai honetan derrigorrezko erreferentzia diren agiri eta tresnetako batzuk honakoak dira:

1. Nazio Batuen konstituzio-karta (1945)
2. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala (1948)
3. Emakumearen aurkako bazterkeria Modu guztiak Desagerrarazteari buruzko Hitzarmena (1979):
 - 5. art.: *"Gizon eta emakumeen jokabide eredu soziokulturalak aldatu, aurreiritziak eta edozein sexuren gutxiagotasun edo nagusitasunari buruzko ideian edo gizon eta emakumeen funtzio estereotipuetan oinarrituta dauden ohiturazko eta beste edozein motatako jokabideak ezabatzeari begira"*
 - CEDAW Emakumearen aurkako Bazterkeria Desagerrarazteko Batzordea sortzea, Estatu Partaideek Hitzarmena ezarriz egiten dituzten aurrerapenak egiaztatzeko funtzioarekin.
4. Emakumearen aurkako Indarkeria Desagerrarazteari buruzko Deklarazioa (1993)
5. Emakumeari buruzko Mundu-konferentziak, batez ere, 1995ean Beijingen burututako IV. Konferentzia, zeinean honelako neurriak onartu baitziren:
 - Emakumeen eta nesken aurka burututako indarkeriazko ekintzak zigortzeko zehapen penalak, zibilak, lanekoak eta administratiboak sartzeari.
 - Generozko *mainstreaming*a sustatzea
 - Biktimei sistema judizialera eta kalte-ordainak jasotzeko eskubideari buruzko informaziora heltzea eskaintzea.
 - Indarkeriazko egoerak salatzeko tresnak sortzea edota daudenak indartzea.
 - Biktimei laguntzeko baliabideak ezartzea.
 - Etab.

Europako esparruan

Nazio Batuen gomendioei jarraituz, Europako Batasunak eta Europako Kontseiluak emakumeen aurkako indarkeria eta haren prebentzioa zenbait ebazpen, programa, plan eta ekimenen bidez landu dute:

1. Emakumearen aurkako erasoei buruzko Europako Parlamentuaren 1986ko ekainaren 11ko ebazpena
2. Emakume eta hurren aurkako indarkeriari aurre egiteko programak:
 - Daphne ekimena (1997-1999)
 - Daphne programa (2000-2003)
 - Daphne II programa (2004-2008)
 - Daphne III programa (2007-2013)
3. Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean zero tolerantzia izateko Europako kanpainari buruzko Europako Parlamentuaren 1997ko ebazpenak prebentzio neurri batzuk proposatu zituen, hala nola:
 - Biktimen babesa bermatzeko zigor kodetik kanpoko berariazko legedia egitea.
 - Indarkeriaren biktimentzako laguntzan lan egingo duten profesionalak prestatzea, haien artean genero indarkeriari buruzko gaiak ezagutzen dituzten epaileak
 - Biktimentzat egokiak diren zerbitzuak antolatzea eta mantentzea
 - Etab.
4. Europako Kontseiluko Ministroen Batzordearen gomendioa Estatu Kideei Emakumea Indarkeriaren aurka Babesteari buruz (2002).
5. Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasunari buruzko Erkidegoko Esparru-estrategia (2001-2005); indarkeria desagerrarazteko ekintzen artean, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta borroka indartzea eta finantzatzea jasotzen du.

Estatuko esparruan

Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osoko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege organikoa, estatuko esparruan, nazioarteko erakundeek emakumeen aurkako indarkeriari erantzun globala emateko egindako gomendioei erantzuten dion tresna juridikoa da.

Legeak prebentzio, hezkuntza, gizarte, sorospen eta biktimei ondoren laguntzeko alderdiak hartzen ditu, hala nola erasoak nagusiki gertatzen diren familia edo elkarbizitzako eremuari eragiten dion arautegi zibila, Herri Administrazioen subsidiarotasun-printzipioa, eta Legeak arautzen duen indarkeria adierazpen orok jasan behar duen zigorra.

I. idazpuruan hezkuntza, publizitate eta osasun arloetan sentsibilizazio, prebentzio, detekzio eta esku-hartze neurriak arautzen dira:

- **Hezkuntza arloa:** Hezkuntza arloan garatu beharreko neurriak gizon eta emakumeen arteko gizarte harreman ereduak gainditzean oinarritzen dira, ereduok balio eta eginkizun desberdinak ematen ditu lehenek bigarrenen gainean daukaten nagusitasun-mendekotasun eskemaren pean.
Eskema hori gainditzeari begira, Legeak emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzio oinarriak hezkuntza maila bakoitzean garatzen ditu, Haur Hezkuntzatik Unibertsitatera, eta irakasleen hasierako zein etengabeko prestakuntzan ezartzeko premia argi zehazten du.
- **Publizitate arloa:** Publizitatearen eta komunikabideen arloko esku-hartzeari "*haien arteko bazterkeria saihestuz, gizonaren eta emakumearen arteko berdintasunaren babes eta zaintza*"ren (14. art.) sustapenetik heltzen zaio lege testuan.
- **Osasun arloa:** Osasun eremua Legeak azpimarratzen duen hirugarren arloa da, daukan prebentzio ahalmena dela-eta. Genero indarkeriaren detekzio goiztiarrera eta biktimen sorospenera bideratutako ekintzak, osasun langileak prestatzeko eta sentsibilizatzeko neurriak, eta indarkeriaren aurrean osasun jokabiderako protokoloen ezarpena eta hedapena jasotzen dira, baita hura osasun plangintzetan sartzea ere.

Bestalde, sensibilizazio neurrien barruan, Legeko 3.1. artikulua **Genero Indarkeriari buruz Sentsibilizatzeko eta Prebenitzeko 2007-2008 Nazio Plana** abiaraztea jasotzen du. Plana 2006ko abenduaren 15eko Ministro Kontseiluan onartu zen, iraupena bi urtekoa da, eta bi jokabide parametroren inguruan eratzen da: prebentzioa (lehen, bigarren eta hirugarren mailakoa) eta sensibilizazioa. Lehentasuneko zazpi jokabide ardatz identifikatzen ditu: justizia, segurtasuna, osasuna, gizarte zerbitzuak, informazioa, hezkuntza eta komunikazioa; eta zeharkako beste bost: ikerketa eta azterketa, profesionalen prestakuntza eta espezializazioa, eragileen mobilizazioa, koordinazioa, eta jarraipena eta ebaluazioa.

Gizarte zerbitzuen ardatzaren zehaztapenetan sartuta, planak autonomiako eta tokiko profesionalen prestakuntzari eta gizarte sorospen osoari buruzko neurriak lehenesten ditu; sorospenak talde berezietatik (minusbalotasuna daukaten emakumeak, etorkinak, adinekoak, nekazal eremukoak, gutxiengo etnikoak) datozen emakumeentzako eta adin txikikoentzako laguntza jasotzen du.

Bere artikuluetan, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osoko Neurriei buruzko Legeak **Emakumearen aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokia** sortzea ere jasotzen du, eta hari emakumearen aurkako indarkeriaren bilakaerari buruzko urteroko txostenaren prestaketa esleitzen zaio³.

2007ko ekainean onartutako Behatokiaren lehen **Urteko Txostenak** Legea onartu zenetik genero indarkeriaren arazoari heltzeko abiarazitako neurriak aztertzen ditu, eta honakoa adierazten du: *"Aurrerapenak handiak izan badira ere, ezartzeko zailtasunak sumatzen dira: eremu penal eta judizialeko neurriak lehenetsi dira, baina batez ere hezkuntza sistemari zuzendutako prebentzio neurrien ezarpena murrizta izan da..."*. Hala ere, honako zehaztapena egiten du: *"... 2004/1 Lege Organikoak bere xedapen guztiak indarrean sartu zirenetik bi urte baino ez ditu bete, eta (...) ondorioz, goiz da fidagarritasuna bermatzen duen sensibilizazio, prebentzio eta detekzio sistemari buruzko epaia egiteko..."* (194. or.).

Egoeraren azterketaz gain, txostenak **jokabiderako proposamen** orokorrak eta sektorialak jasotzen ditu, Genero indarkeriari buruz sentsibilizatzeko eta prebenitzeko nazio planean eta planarekin batera onartutako Premiazko neurrien katalogoan jasotakoei jarraikortasuna emateko eta indartzeko⁴.

³ Legeko 30. artikulua.

⁴ Premiazko neurrien katalogoak biktimen segurtasuna indartzeko, babes judiziala **areagotzeko** eta gaiari buruz gizartearen sensibilizazioa sustatzeko jokabideak dakartza.

Estatuko esparruan garrantzia daukan beste tresna bat **Aukera Berdintasunari buruzko 2008-2011 estrategia-plana** da; **prebentzio kontuetan**, indarkeriari buruzko 10. ardatzaren barruan, honakoa adierazten du:

"Genero indarkeriari buruzko sentsibilizazio eta prebentzio neurriak indartzea eta gertaera bortitz horren zioen eta ondorioen ezagupen hobea hobeagotik borrokatzeko gizartearen inplikazio maila areagotzea". (2. helburua).

Planak helburua garatzeko zazpi jokabide zerrendatzen ditu, eta gehienak lehen eta bigarren mailako prebentzio eremuan sartzen dira.

EAEko autonomia esparruan

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea EAEn emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren lorpenak aurrera egin dezan dagoen funtsezko tresna juridikoa da, eta bere osotasunean indarkeria sexista prebenitzeko izaera dauka.

Kultura eta komunikabideei buruzko III. Idazpuruko II. Atalean, komunikabideei hizkuntza ez sexista erabiltzeko eta emakume eta gizonen agerpen orekatua eta estereotipo sexistetatik kanpoko irudi plurala sustarazteaz gain (26.3 art.), gizarte komunikabideetan emakumearen aurkako indarkeria zuritu, gutxietsi edo bultzatzen dituzten iragarkiak eta egitea, emititzea eta erakustea eta holako edukiak hedatzea debekatzen ditu (26.1 eta 26.2 art.). Debekua ez betetzea hutsegite larritzat jotzen da (77.3.b art.) eta bere zehapena dakar (79. art.).

Hezkuntzari buruzko III. Idazpuruko III. Atalari dagokionez, honako 3 neurriak azpimarra daitezke:

- Alde batetik, xedatzen da hezkuntza administrazioak hezkuntza etapa guztietako ezagutza arlo eta ikasgai guztietako curriculumaren diseinuan eta garapenean emakumearen aurkako indarkeriaren prebentzioaren helburua sartuko dela (29.1.e art.).
- Bestalde, hezkuntza administrazioari hezkuntza maila guztietan eguneroko bizimodurako ikasketari lotutako berriazko edukiak eta denborak ezartzeko betebeharrak ezartzen zaio; haietan, besteak beste, gatazkak ebazteko indarkeriarik gabeko metodoen eta sexuen berdintasunarekiko eta aniztasunarekiko begirunean oinarritutako elkarbizitza ereduak ikasketari lotutako edukiak sartu beharko dira (29.2 art.).
- Bukatzeko, Autonomia Erkidegoko hezkuntza zentroetan emakumeen aurkako indarkeria zuritu, gutxietsi edo bultzatzen duten testuliburuak eta material didaktikoak egitea, hedatzea eta erabiltzea galarazten da (30.1 art.). Debekua ez betetzea hutsegite larritzat jotzen da (77.3.b art.) eta bere zehapena dakar (79. art.).

Arestiko paragrafoetan adierazitakoa eta xedatutako gainontzeko hezkidetzak helburuak bete ahal izateko, Legeak hezkidetzan berariazko gaitasuna daukaten pertsonak prestatzeko (31. art.) eta gai horretan profesionalak trebatzeko (32. art.) neurriak ezartzen ditu.

Legeko VII. atalean bereziki emakumearen aurkako indarkeriaz hitz egiten da, eta artikulua indarkeria borrokatzeko estrategiak adierazten dituzten sail bitan antolatzen dira:

Ikerketa, Prebentzioa eta Prestakuntza (1. saila):

- Indarkeriaren zioen eta ondorioen ikerketa, eta desagerrarazteko abiarazitako neurrien eraginkortasunarena.
- Prebentzioa, emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko sentsibilizazio kanpainen bidez.
- Herri administrazioen eta emakumeen aurkako kasuetako esku-hartze eremuan lan egiten duten erakunde pribatuen langileen prestakuntza.

Etxeko tratu txarren eta sexu eraso biktimentzako laguntza eta babes (2. saila), erakundeen arteko koordinazioaren ikuspegitik, eta honako baliabideen bidez: Babes poliziala; Aholkularitza juridikoa; Laguntza psikologikoa; Harrera pisuak eta larrialdietarako zerbitzuak; Prestazio ekonomikoak; Etxebizitza; Lan-txertatzea; Hezkuntza.

Prebentzioko hiru mailen ikuspuntutik, Legeak osorik heltzen dio, indarkeria gertaerarik ezetik haien ondorioen trataerara zabaltzen den kontinuumean.

Bestalde, 2004ko martxoaren 17an Eusko Legebiltzarrak Emakume eta Gazteria Batzordean **genero indarkeriari buruzko parlamentuko batzorde txostengilea**⁵ sortzea erabaki zuen zioak, tresnak eta Euskadin genero indarkeriari eta hura desagerrarazteari lotuta burutzen diren politikak aztertzeko. 2004ko urritik 2007ko otsaila arte, batzorde txostengilearen aurrean emakumeen aurkako arloan lan egiten duten talde profesional, elkarte eta erakundeetako ordezkari talde zabala agertu dira, haien lana, sumatutako gabeziak eta haien aldarrikapenak ezagutu ahal izateko.

Prozesua hasi eta lau urtera, 2008ko martxoaren 14an, Legebiltzarreko osoko bilkurak Emakume eta Gazteria Batzordeak egindako ebazpena onartu du. Txostenak esku-hartzeko hiru ardatz ezartzen ditu:

1. Prebentzio eta Sentsibilizazioko ardatza
2. Laguntza eta Babeseko ardatza
3. Ikerketako ardatza.

⁵ Emakume eta Gazteria Batzordea (Eusko Jaurlaritza), "Genero indarkeria jasaten duten emakumeentzako laguntzari buruzko ebazpena", 2008, <http://www.parlamento.euskadi.net>

Ardatz bakoitza helburu orokor eta zehatzetan egituratzen da, eta jarduera arlo desberdinetatik garatu beharreko neurri orokorrak, zeharkakoak eta zehatzak jasotzen ditu.

Prebentzio eta Sentsibilizazioko ardatzaren –haren edukia ondorengo orrialdeko taulan jaso da– helburu nagusiak, genero indarkeria bere adierazpen guztietan prebenitzea eta gizarte sentsibilizazioko neurriak garatzea dira, eta honako esparruetan garatu beharreko ekintza zehatzak ezartzen ditu:

- Hezkuntza,
- Kultura eta komunikabideak,
- Osasuna,
- Gizarte zerbitzuak,
- Justizia,
- Zerbitzu polizialak, eta
- Hirigintza.

Gizarte zerbitzuen esparruan, antzemandako zailtasunak gainditzeari begira, prebentzio neurri gisa, honakoak azpimarratzen ditu: familiako esku-hartze programak; erasoak pairatzeko arriskuan dauden emakumeei eta haien seme-alabei gizarte zerbitzuetatik laguntzeko laguntza sareak egituratzea.

HELBURU OROKORRAK

Genero indarkeriaren prebentzioa bere adierazpen guztietan. Gizartea sentsibilizatzea arazoaren larritasunaren jakitun izan dadin. Holako portaerekin zero tolerantzia sustatzea.

HELBURU ZEHATZAK

- Genero indarkeriaren ondorioak ezagutaraztea. Indarkeriaren ondorioak eta moduak ezagutzea eta aztertzea, arazo bereziak dauzkaten emakume taldeei arreta berezia jarritz.
- Genero indarkeriaren arazoaren zioen gainean jardutea.
- Komunikabideak genero indarkeriaren aurkako borrokan nahastea.
- Hezkuntza arloa: hezkuntza sistemako maila guztietan berdintasuneko balio ez baztertzailak sustatzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna lantzea eta bermatzea.
- Gatazkak ebazteko trebetasunak eskuratzea.
- Erasotzaileen jarraipen eta kontrol eraginkorra.

NEURRI GENERIKOAK

- Emakumeen aurkako indarkeria adierazpen oro prebenitu.
- Emakumeen aurkako indarkeria adierazpenei buruz sentsibilizatu eta kontzientziatu.
- Emakumeei tratu txarren biktimei laguntzeko dauden baliabide eta zerbitzuei buruz jakinarazi.
- Emakumeen eta gizonen arteko benetako aukera eta eskubide berdintasun eraginkorra landu eta bermatu.
- Emakumeen aurkako jokabide bortitzen aurrean "zero" tolerantzia sustatu.

ARLO GUZTIENTZAKO NEURRI KOMUNAK

- Indarrean dagoen legedian xedatutako berdintasun planak garatu.
- Arlo guztietan profesionalak eta eragileak sentsibilizatu eta prestatu.
- Jokabide protokoloak definitu.
- Profesionalentzako (gizarte langileak, hezitzaileak, osasun langileak, poliziak, etab.) gidaliburuak prestatu.
- Tratu txarren biktimeentzako ibilbideak diseinatu.
- Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazio, sentsibilizazio eta kontzientziazio kanpainak egin.
- Tratu txar arriskuko egoerei antzemateko balioko duten adierazleak definitu.
- Emakume guztientzako eskubideak bermatu, zein ere diren haien jatorria eta kondizioa.
- Genero indarkeriaren biktimak babesteko herritar partaidetza maila guztietan sustatu.

NEURRI SEKTORIALAK: GIZARTE ZERBITZUAK

- Oinarrizko gizarte zerbitzuen lan bateratutik eraso pairatzeko arriskuan dauden emakumeentzat eta haien seme-alabentzat laguntza sareak bultzatu.
- Tratu txarrak prebenitzeko familiako esku-hartze programak zabaldu eta hedatu.

Iturria: Genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntzari buruzko ebazpena (Emakumea eta Gazteria Batzordea, Eusko Legebiltzarra)

Bestelako Erkidegoetako autonomia esparruan

Estatu mailan, zenbait autonomia erkidegok emakumearen aurkako indarkeriari buruzko lege osoak prestatu, edo prebentzioari eta hartu beharreko neurriei buruzko legeak egin dituzte, lehen, bigarren eta hirugarren mailetatik babes osoa eskainiz. Aitzindariak honakoak dira:

Gaztela-Mantxako Autonomia Erkidegoa: Maiatzaren 17ko 5/2001 Legea, Gaztela-Mantxako tratu txarrak prebenitzeko.

Nafarroako Foru Erkidegoa: 22/2002 Foru Legea, uztailaren 2koa, indarkeria sexistaren aurka neurri integralak hartzeari buruzkoa.

Kanarietako Autonomia Erkidegoa: Apirilaren 8ko 16/2003 Legea, emakumeak genero indarkeriaren kontra babesteko eta indarkeria bera prebenitzeko.

2004ko apirilaz geroztik, zenbait autonomia erkidegotan bestelako xedapenak onartu ziren:

Kantabriako Autonomia Erkidegoa: Apirilaren 1eko 1/2004 Legea, Osoa emakumearen aurkako indarkeria prebenitzeko eta haren biktimak babesteko.

Madrilgo Autonomia Erkidegoa: 5/2005 Legea, abenduaren 20koa, Madrilgo Erkidegoarena, Genero indarkeriaren aurkako lege integrala.

Aragoiko Autonomia Erkidegoa: Martxoaren 22ko 4/2007 Legea, Aragoi indarkeriaren biktima diren emakumeei babes osoa ematekoa.

Andaluziako Autonomia Erkidegoa: Azaroaren 26ko 13/2007 Legea, genero indarkeriaren kontra babesteko eta indarkeria bera prebenitzeko neurriei buruzkoa.

Galiziako Autonomia Erkidegoa: Uztailaren 27ko 11/2007 Legea, Galiziakoa, genero indarkeria prebenitzeko eta osorik tratatzeko. 1. Sentsibilizazio neurriak

A.2. LEHEN MAILAKO PREBENTZIOA

Lehen mailako prebentzioa berdintasunari buruzko ideia sustatzeari eta gizarteko arlo guztietara proiektatzeari dago zuzenean lotuta. Bigarren eta hirugarren mailako prebentzioek arazoa agertutakoan garatu beharreko neurriak eskatzen dituzte: bai haren ondorioak murrizteko (bigarren mailako prebentzioa), bai kaltetutako pertsonen osaketa errazteko (hirugarren mailako prebentzioa).

Era horretako neurriei buruzko gogoetei txosten honetako hurrengo ataletan helduko zaienez gero, atal honetan lehen mailako prebentzioari baino ez diogu helduko.

Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduera orokorrari buruz

2000ko maiatzaren 30ean emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunerako eta genero politikari buruzko foru plana⁶, onartu zenetik, Bizkaiko Foru Aldundiak egun arteko prozesu sendoa abiarazi du Bizkaian berdintasunerako politikak ezartzeko. Handik eratorritako jokabideek erakundearen egitura osoari eta Lurralde Historikoko gizarte osoari heltzen diete, foru erakundearen kudeaketa sailek garatutako neurriei esker, eta haren egikaritzea Foru Planaren Sailen arteko Jarraipen Batzordeak koordinatzen du⁷.

Europako Batzordearen gidalerroei jarraituz, foru erakundearen esparruan ahalegin handia ari da egiten erakundearen barneko prozesuetan zeharkakotasun printzipioa indartzeko. Bizkaiko Foru Aldundiaren jardueran genero ikuspegia sartzek, egun, honako babesle nagusiak dauzka:

- ✓ Urtero berdintasunerako helburu eta jokabideekin prestatzen diren programa departamentalak
- ✓ Prestatzen, onartzen eta ezartzen diren "Bizkaiko Foru Aldundiaren prozesu giltzarrietan genero ikuspegia sartzeko protokoloak"⁸, erakundeko sailletako prozesu komunetan genero ikuspegia sartzeko sistematizatzeke tresnak⁹.

⁶ Plana 2000-2003 bitarteko iraupenez onartu zen, eta 2003ko abenduaren 30eko Foru Aldundiaren Gobernu Batzordean 2004-2007 aldirako berretsi zen.

⁷ Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunerako eta Genero Politiketarako Foru Planaren Sailen arteko Jarraipen Batzordeak ekainaren 30eko 3.548/2000 Foru Aginduak arautzen du.

⁸ Maiatzaren 18ko 386/2006 Foru Aginduak onartua.

⁹ Jasotako prozesuak honakoak dira: Hizkuntzaren erabilera ez sexistaren egokitzapena, Sailen barruko batzordeak sortzea, Diru-laguntzak, Ikerketak, Material eta argitalpenen edizioa, eta Jardunaldi eta biltzarren antolaketa.

Berdintasun kontuetan foru erakundearen jokabide orokorreko esparrua hura izanik, Lan-taldeak honakoa gomendatzen du:

(1. gom.)

Bizkaiko Foru Aldundiaren jardueran genero ikuspegia sartzeko barneko prozesuetan aurrera egitea –horretarako diseinatutako tresnak ezarriz-, foru jokabidearen helburu den emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ezartzearen alde egingo duen baliabide gisa.

(2. gom.)

Berdintasunerako Foru Planaren Sail arteko Jarraipen Batzordearekin batera, sail bakoitzak berdintasunezko jokabideak garatzeko batzordearen baitan urtero egiten dituen programa operatiboetan emakumeen aurkako indarkeriari lotutako ekintzak sartzea aztertzea.

Era berean, gizartean emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren adierazpen gorenaren emakumeen aurkako indarkeria izanda, berdintasunerako politiken diseinuan lehentasunezko kontua da, eta horrela jasotzen du EAEko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako IV. Planak¹⁰, zeinek emakumearen indarkeriari osorik eta sektoreen artean heltzen baitio¹¹. Egun foru erakundea, aurreko tresnaren indarraldia bukatu dela-eta, berdintasunerako plan berria prestatzeko prestatzen ari denez gero, Lan-taldeak honakoak gomendatzen ditu:

(3. gom.)

Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunerako eta Genero Politikei buruzko 2004-2007 Foru Plana ordezkatzeko duen hurrengo Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunerako eta Genero Politikei buruzko Foru Planaren sorkuntzan eta diseinuan emakumeen aurkako indarkeria ardatzetako bat izatea.

¹⁰ EAEko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako IV. plana, VIII. legegaldiko jarraibideak

¹¹ Plana hiru ardatz, programa eta helburutan egituratzen da; emakumeen aurkako indarkeria ardatzetako bat da, Mainstreamingarekin, Jabekuntza eta parte hartze soziopolitikoarekin, eta Bateratze eta erantzunkidetasunarekin batera.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko gizarteari begira burutzen dituen jardueren baitan, "Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunetako Foroa" deritzon eta lurraldean lan egiten duten emakume taldeak biltzen dituen kontsultarako foroa bultzatzea dago; foro hori Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren osoko bilkuran daukan batzordekide baten bidez dago ordezkaturatuta.

(4. gom.)

"Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Foro"an sartutako emakume elkarten ahalmena baloratzea eta indartzea, indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntza sarerako zubi gisa, foro horretako lan dinamikaren esparruan, elkarte horiek hartzaile izango dituzten sentsibilizazio eta informazio ekintzen bidez.

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren jarduerari buruz

Adierazi den bezala, lehen mailako prebentzio neurriek arazorik ezean burutu beharreko jokabideak biltzen dituzte, epe luzeko ondorioekin proiektatzen dira (sentsibilizazioa), eta emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko tresna nagusia den berdintasunerako bidea sustatzen dute; balio sistema aldatzera eta emakumeen eta gizonen arteko harreman esparru gisa berdintasun eta errespetuari buruzko ideiak helaraztera bideratzen diren neurriak dira.

Emakumearen aurkako Indarkeriaren Estatu Behatokiaren urteko txostenak (2007) honela laburbiltzen du:

"... genero indarkeriarentzako epe ertain eta luzeko irtenbidea hezkuntzaren eta komunikabideetako kanpainen bidez indarkeria prebenitzean, eta gizartea hartara sentsibilizatzean datza..."

Bestalde, Emakunderen "Emakumeen aurkako indarkeria" izeneko azken txostenak (2008), zeinek Emakundek zenbait esku-hartze eremutan burututako jarduerarik garrantzitsuenak biltzen baititu, honakoa gogorarazten du:

"Emakumeen aurkako indarkeria alderdi askotako fenomeno korapilatsua da, eta haren sustraiak gizarte honetan emakumeek pairatzen duten egiturazko desberdintasunean daude. Indarkeria sexista prebenitzeko, desberdintasunak desagerrarazi behar dira eta horretarako gizarteratze prozesuan eragiten duten erakunde eta mekanismo guztietan (familia, eskola, komunikabideak, publizitatea, hizkuntza...) eragin behar da nagusi diren genero eginkizunak eta estereotipoak aldatuz eta sexu bien arteko begirunean eta berdintasunean oinarritutako balioak eta ereduak sustatuz".

Argi eta garbi, hezkuntzaren eta komunikabideen eremuak maila horretan esku hartzeko erreferentziak dira, gizarte elementua aldatzeko daukaten ahalmen handiagatik. Ikuspegi horretatik, Lan-taldeak honakoak gomendatzen ditu:

(5. gom.)

BGIBren webgunearen bidez, EAEko esparruan emakumearen aurkako indarkeriaren prebentzioari begira komunikabideei dagokienez garatutako tresnak hedatzea.

(6. gom.)

BGIBren aldizkariaren bidez, EAE mailan, hezkuntzaren eremuan emakumearen indarkeriaren prebentzioari buruzko jokabideak, kontsulta materialak, etab. hedatzea.

(7. gom.)

Emakumeen aurkako etxeko tratu txarren prebentzio eta laguntza kontuetako jokabide onei lotutako txostenen eta ikerketen prestaketa bultzatzea eta BGIBen webgunearen bidez holako lanak hedatzea.

Bestelako erakundeen jarduerari buruz

Lehen mailako prebentzioaren eremuan, emakumearen aurkako indarkeria egoerak normaltasunaren baitan kokatzen dituzten jarrerak eta sinesmenak aldatzeko sentsibilizazio publikoko jarduerak funtsezkoak dira. Hori dela eta, Lan-taldeak honakoa gomendatzen du:

(8. gom.)

Indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko sareen sentsibilizazioa bilatzen duten ekintzak (kanpaina dibulgatzaileak, etab.) burutzea, mota horretako egoerak ezagututa, holako emakumeei laguntza eraikitzailea eman ahal diezaieten. Landa eremuan holako neurriek garrantzi oso handia izan dezakete.

B MULTZOA

**INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO
LAGUNTZARI BURUZKO GOMENDIOAK**

Indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko gizarte zerbitzuen
hobekuntza

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu bilketaren hobekuntza

Profesionalak emakumeen aurkako indarkeriari buruz prestatzea

Erakundeen arteko koordinazioa

B.1. INDARKERIAREN BITIMA DIREN EMAKUMEEI LAGUNTZEKO GIZARTE ZERBITZUEN HOBEKUNTZA

Hitzaurrea

Alderdi honi gurutako gogoetari heltzeko arrazoia da indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko zerbitzuen modalitatea giltzarria dela haien eraginkortasuna erdiesteko: benetako premiei erantzutea. Holako zerbitzuak funtsezko esku-hartzearen erreferentzia dira, eta horregatik da hain garrantzitsua ekintza estratergiei, baliabideei edo antolakuntza ereduiei buruz mintzatzea erakundeen erantzuna taldearen premietara egokitzen laguntzeko.

Erronka jokabide koordinatua lortzea da, horrela zerbitzuen erabilera eraginkorra kudeatzeko, biktimen premiei erantzuteko eta haiei atxikitako baliabide materialak eta giza baliabideak indartzeko eta optimizatzeko.

Azken urteotan Bizkaiko Lurralde Historikoan biktimei zuzendutako babeserako, aholkularitza juridikorako, laguntza psikologikorako eta familiako esku-hartze espezializaturako tokiko eta foruko erakundeen mendeko baliabide berriak abiarazi direla egiaztatzen da. Baliabide horiek guztiak koordinatu behar dira haien sakabanaketa edota gutxiegi edo gehiegizko erabilera saihesteko, eta nahastutako erakundeek gizarte politiken plangintza bateratua egin behar dute emakumeen aurkako etxeko indarkeriaren esparruari eragiten dioten zerbitzu eta prestazioen eskaintza hobetzeko.

Laburbilduz, dauden zerbitzuen eskaintza hobetzen lagundu behar da, eskuragarritasunari dagokionez, lurraldeen araberako desberdintasunak desagerraraziko dituen baliabideen antolakuntzaren bidez, haien sareko koordinazioa eginez; eta erakundeen arteko elkarlana indartu behar da, dauden premiei antzemateko eta haietarako erantzun egokia planifikatzeko eta ezartzeko.

B.1.1. Indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko gizarte zerbitzuen programak kudeatzeko egitura Bizkaian.

Bizkaian etxeko tratu txarren biktima diren emakumeak babesteko berariazko baliabideei buruz.

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan, Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legeak, bere artikuluetan (12.2 art.) jasotzen du 20.000 biztanletik gorako udal guztietan larrialdiko babeserako zerbitzuak egon behar direla "ostatu faltak, edo elkarbizitza gatazka larriek ekarritako egoera kritikoei laguntza emateko". Bestalde, 57. artikuluan, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktima diren biktimei laguntzeari eta babesteari dagokienez, herritar kopuru bera jasotzen du udal eta mankomunitateek etxeko tratu txarren biktimen babes eta aldi baterako ostatu premiei erantzuteko babes etxeak eduki behar izateko.

2007an, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak etxeko tratu txarren biktima diren emakumeak babesteko baliabideak arautzen dituen 148/2007 Dekretua atera zuen; haren arabera, etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzat EAEko lurraldean kokatuta dauden babes baliabideen kalitate eta funtzionamendurako gutxieneko irizpide eta baldintzak arautzen dira, zein ere den haien titulartasuna.

Bizkaian etxeko tratu txararen biktima diren emakumeentzako babesa Bizkaiko Foru Aldundiaren baliabideen bidez (Larrialdiko babes zerbitzua eta Egonaldi ertain-luzeko babes zentroa) ematen da, eta babeserako bere baliabiderik ez daukaten Lurraldeko udal guztietara iristen da. Foru erakundeaz gain, beste zenbait erakunde ere –udal eta mankomunitateak- zenbait babes baliabideren (batez ere babes pisuak) tituludunak dira, tratu txarren biktima diren emakumeen eta haien ardurapeko seme-alaben ostatu premiak betetzeko.

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak egindako datu bilketaren arabera, 2003tik 2006ra Bizkaian babes baliabideetako sarea Aldundiaren baliabideek eta Basauri, Bilbo, Ermua, Galdakao, Santurtzi eta Sestaoko udalen, Busturialdeko Mankomunitatearen eta Mungialdeko partzuergoaren baliabideek osatu zuten. 2007an Bizkaiko babes baliabideen zerrenda Barakaldoko udalean abiarazitako pisuarekin handitu zen.

2008. urtearen hasieran, udal berak 12 lagunentzako egonaldi luzeko babes eta laguntza osoko zentroa abiarazi zuen, eta garai berean, Durangoko udalak babes pisu bat atondu zuen. Egun, urtea bukatu aurretik lau baliabide berri irekiko direla aurreikusten da: Abanton (pisu 1); Portugaleten (pisu 1); eta Zallan (pisu 2).

Ondoko taulak jasotzen dituen erabilera datuei erreparatuz gero, agerian geratzen da erakunde batzuen eta besteen balantzeen arteko aldea, eta egoera bipolarra egiaztatzen da: kasu batzuetan baliabideak gainezka daude (Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bilboko udalaren egoera), eta besteetan gutxiegi erabiltzen dira (gainontzeko erakundeak).

1. taula. Babes pisuak/zentroak Bizkaian. Ezaugarri orokorrak (2007) eta erabiltzaileak (2006 eta 2007)

Erakundeak	Zentro/pisu kop.	Leku kop.	Erabiltzaileak 2006an ¹²		Erabiltzaileak 2007an ¹²	
			Emakumezkoak	Adin txikikoak	Emakumezkoak	Adin txikikoak
Bizkaiko Foru Aldundia	Larrialdiko 1	12	103	60	108	74
	Egon. E/Lko 1	26	15 (11 larrial.)	13 (12 larrial.)	15 (12 larrial.)	14 (10 larrial.)
Barakaldoko Udala ¹³	1	5	-	-	9	4
Basauriko Udala	2	10	3	0	5	6
Bilboko Udala	7	35	19	15	28	28
Ermuko Udala	1	5	2	1	2	0
Galdakaoko Udala	1	8	3	6	2	0
Santurtziko Udala	1	5	1	0	1	0
Sestaoko Udala	1	5	1	3	0	0
Busturialdeko Mankomunitatea	1	5	1	2	0	0
Mungialdeko Partzuergoa	1	6	1	0	0	0

Iturria: Geuk egina.

Egoera hori azaltzeko eta udal askok batzuetan erabiltzaileak kontzentrazio ereduari jarraitzen dioten Aldundiko babes zerbitzuetara bidaltzeko ekimena babesteko segurtasunari buruzko argudioak eman daitezke. Azaltzeko beste eragile bat honakoa da: udalaren titulartasuneko baliabide horiek eskuratzeko, bizilekua baliabidea kokatuta dagoen udalean izatea eskatzen da. 148/2007¹⁴ Dekretuko 28.1.c eta 45.1.c artikuluetan ezarritakoa gorabehera, araudiak kasu gutxitan uzten du atea irekita baliabidea bizileku administratiboa udalean finkatuta ez daukaten emakumeek erabil dezaten, holako kasuetan emakumeak inguru horretara aldatzeko asmoa izatea baloratzen bada ere.

Hori dena kontuan izanda, Bizkaian etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako babes baliabideen erabilera arloan dagoen bipolaritate hori gainditzeko, dauden baliabideak

¹² BFAren egonaldi E/Lko zentzoko erabiltzaileei dagokienez, urte horretako kasu berriak dira.

¹³ Barakaldoko babes pisua 2007an abiarazi zen.

¹⁴ Irailaren 11ko 148/2007 Dekretua, etxeko tratu txarren biktima den emakumeentzako babes baliabideak arautzen dituena.

errentagarritasunez eta eraginkortasunez kudeatzeko, eta, ondorioz, Lurraldean gertatzen diren egoerei emandako erantzuna hobetzeko, Lan-taldeak uste du dauden baliabideak bateratuko dituen irtenbidea bilatu behar dela, eta horretarako honakoa gomendatzen du:

(9. gom.)

Bizkaian bizi diren emakume guztiei haiek erabiltzea ahalbidetuko dien lurraldeko babes baliabideetako sarea eraikitzea.

Indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzu eta programen zentralizazio/deszentralizazioari buruz.

Babes baliabideekin batera, aholkularitza juridiko eta laguntza psikologikoko baliabideak tratu txarren biktimenzako laguntzaren oinarriak dira gizarte eremuko prestazioen barruan. Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko 4/2005 Legeak, aholkularitza juridikoari buruzko 55. artikuluan, eta laguntza psikologikoari buruzko 56.ean, jasotzen du euskal herri administrazioek tratu txarren biktimei holako prestazioak doan, era espezializatuan, premiazkoan eta eskuragarrian jasotzeko eskubidea bermatzeko behar diren bitartekoak jarri behar dituztela, eta gainera, laguntza psikologikoari dagokionez, hura deszentralizatu izango dela xedatzen du.

Bere baliabideen bidez zerbitzua Lurralde osoari ematen dion Bizkaiko Foru Aldundiak, batez ere zentralizazio irizpideei jarraituz antolatzen ditu baliabideok, eta salbuespen bakarra laguntza psikologikoko programan dago –egun Lea-Artibaiko Mankomunitatean astean 14 orduz ematen da-; laguntza deszentralizatu hori 2006an abiarazi zen, asteko 5 ordurekin, Lea-Artibaiko Mankomunitatean bizi ziren eta tratu txarren biktima ziren emakume eta adin gabekoei programan sartzea errazteko, bidaiatzeko zauzkaten zailtasunak direla-eta, eta laguntza Markina-Xemeingo udalean ematen da. Enkarterrietako Mankomunitateari ere zerbitzua deszentralizatzea aurreikusten da.

Zerbitzuen deszentralizazioak eragin zuzena dauka eskuragarritasunean, eta hura, bestalde, honakoei dago lotuta:

- Baliabidearen kokapena.
- Erabiltzailearen etxearen eta baliabidearen kokapenaren arteko distantzia:
 - Distantzia kilometroetan
 - Distantzia denboran (kilometroetako distantziaren eta garraio publikoaren eskuragarritasunaren arteko ratioa)

Deszentralizatzeko premiak honakoak hartu behar ditu aintzat:

- Erantzuten dion premiaren garrantzia.
- Eragiten dion populazioaren tamaina.

- Zerbitzura joko duen pertsonaren banakako ezaugarriak, eskuragarritasunerako aukera zehazten baitute.

Deszentralizazioa baliabide materialen eta giza baliabideen optimizazioaren ikuspegitik planifikatzerakoan, lehenbizi **dauden baliabideen azterketa** egin behar da (tokiko estaldurarik gabeko guneei antzematea ahalbidetuko duen zonifikazioa).

Gainera, honako faktoreak ere izan behar dira kontuan: **egungo eskaria; biztanleriaren tamaina; erakundeen arteko koordinazioa** behar diren baliabideak (lekuak, langile taldea, etab.) finantzatu eta eskuragarri egon ahal izateko; eta, batez ere, **baliabidera iristeko joan-etorrietarako denbora** – zerbitzu baterako eskuragarritasuna aztertzerakoan, adierazlerik onena pertsonak, bere etxetik, bere kabuz iristeko behar duen denbora da, horrela, distantzia ez ezik, dagoen garraio eskuragarria ere aintzat hartzen baita.

Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzuen deszentralizazio prozesuari heltzeko, aholkularitza juridikoko zerbitzuaren eta laguntza psikologikoko zerbitzuaren azterketa diferentzialetik abiatu behar da, errealitate oso desberdinak direlako.

Aholkularitza Juridikoko prestazioari dagokionez, dagoen foru baliabideari, bere titulartasunaren pean, gaian baliabideak egokitzeko eta mantentzeko erantzukizuna bere eginez, Bizkaiko udalek eta mankomunitateek eskaintzen dituztenak gehitu behar zaizkio.

Bilakaeraren ikuspegitik, aholkularitza juridikoko premiei erantzun eta mota horretako baliabidea egokitu zuen lehen udala Bilbo izan zen, 1982an, eta zortzi urte igaro arte ez dago antzeko ekimenik, Uribe-Kostako Mankomunitatean (1990). Gerora, hamarkada horretan, beste erakunde batzuk batu ziren, apurka-apurka: Galdakao eta Leioako udalak (1991), eta Busturialdeko (1996) eta Lea-Artibaiko (1998) mankomunitateak. Hala ere, 2001ez geroztik eta *Etxeko tratu txarren eta sexu eraso biktima diren emakumeentzako laguntza hobetzeko erakundeen arteko hitzarmena* sinatu zenez geroztik biderkatu ziren abiarazitako holako zerbitzuak, egun bere prestazioen artean daukaten erakunde guztizko kopurura iritsi arte. 2007an, foru baliabidez gain, Bizkaiko Lurralde Historikoko 18 udalek eta 6 mankomunitatek (guztira 52 udal bilduta) zeukaten aholkularitza juridikoko baliabidea, eskaintza zabala eratuz. 2008ko lehen hiruhilekoan, aholkularitza juridikoko baliabideen mapa hazi egin zen, Ugao eta Trapagarango udaletan mota horretako prestazioak abiatuta, eta egun beste erakunde batzuek ere antzeko zerbitzuak abiaraztea aztertzen ari dira (Erandioko Udala eta Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea).

2. taula. Aholkularitza juridikoko programa daukaten udalak eta mankomunitateak. Bizkaia. 2008.

Udalak		Mankomunitateak
Abanto-Zierbena	Galdakao	Busturialdea
Amorebieta-Etxano	Getxo	Mungialdeko Partzuergoa
Arrigorriaga	Leioa	Lea-Artibai
Balmaseda	Muskiz	Lea-Ibarra
Barakaldo	Urduña	Uribe-kosta
Basauri	Urtuella	Durangoko Merindatea
Bermeo	Santurtzi	
Bilbo	Trapagaran	
Ermua	Ugao	
Etxebarri	Zalla	

Iturria: Geuk egina

Programen edukia aztertuz gero, ikusiko da oso antzekoa dela kasu guztietan; foru erakundeak zein tokiko erakundeek –udalek eta mankomunitateek- aholkularitza juridikoko zerbitzuak dauzkate familiako zuzenbide kontuetan eta tratu txarren edota sexu erasoen kasuetan.

Inguruabar horiek adieraz dezakete ez dela beharrezkoa baliabidea deszentralizatzea, Bizkaiko Lurralde Historikoan estaldura zabal eta homoginoa dagoelako.

Laguntza Psikologikoko prestazioari dagokionez, azterketa oso bestelakoa da. Babes prestazioarekin gertatu legez, Bizkaiko Foru Aldundia da etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktimei laguntza psikologikoa ematen dien erakunde nagusia, Lurralde osora iristen den zerbitzuaren bidez.

Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen duen programaz gain, Lurraldeko udal eta mankomunitate batzuek laguntza psikologikoko bere zerbitzuak daukate. Kasu gehienetan zerbitzuak ez dira espezializatuak, eta herritar guztiei zuzenduta daude, ez bereziki biktimei.

Bilbo¹⁵ izan ezik, zeinek laguntza psikologikoa ematen ere 1982an hasi baitzen, Bizkaian baliabide hori daukaten gainontzeko tokiko erakundeek beranduago abiarazi zuten. Antzeko zerbitzua eskaini zuen bigarren udala Leioa izan zen, 1985ean. 2000. urtean Galdakao eta Mungialdeko Partzuergoa talde horretara batu ziren eta, 2001ean *Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktimei diren emakumeentzako laguntza hobetzeko erakundeen arteko hitzarmena* sinatu zenez geroztik,

¹⁵ Egun, Bilbon tratu txarren biktimei diren eta laguntza psikologikoa behar duten emakumeak Bizkaiko Foru Aldundiko laguntza psikologikoko programara bideratzen dira; hala ere, Emakumearen Udal Zerbitzuaren eta Modulu Psikosozialen arteko hitzarmena dago itxaro-zerrendarik egonez gero biktimei laguntza emateko.

Lurraldeko beste bederatzi udal erakundek eta mankomunitate batek sartu zuten laguntza psikologikoa beren zerbitzu-zorroan. Erakunde horien artean Gernikako (2001) eta Zallako (2003) udalak daude, zeinek praktikan Busturialdeko Mankomunitateko eta Enkarerrietako Mankomunitateko gainontzeko udaletako emakumeentzako laguntza hartzen baitute bere gain; beraz, laguntza jasotzen duen populazioa gehiago hazten da.

2007an, tratu txarren eta sexu erasoen kasuetarako Laguntza Psikologikoko Foru Programaz gain, Bizkaian 13 udalak eta mankomunitate 2k (azkenek 17 udalerrri biltzen dituzte) zeuzkaten Laguntza Psikologikoko zerbitzuak, eta erakundeek eskainitako programen edukiari dagokionez aniztasun handia zegoen: biktimen kolektiboarentzako laguntza espezializatutik (Barakaldo eta Santurtziko udaletan baino ez) herritarrei orokorrean zuzendutako esku-hartzera –banakakoa edo taldekkoa-. 2008an ez da aldaketarik egon egoera horretan.

3. taula. Laguntza psikologikoko programa daukaten udalak eta mankomunitateak. Bizkaia. 2008.

Udalak		Mankomunitateak
Amorebieta-Etxano	Leioa	Mungialdeko Partzuergoa
Barakaldo	Muskiz	Durangoko Merindatea
Basauri	Urduña	
Bilbo ¹⁶	Portugalete	
Ermua	Santurtzi	
Galdakao	Zalla	
Getxo		

Iturria: Geuk egina

Bestalde, arestian aipatu legez, arlo horretan, hain zuzen ere, kokatzen da, Bizkaiko Foruaren aldetik, zerbitzu horren prestazioaren deszentralizazio esperientzia bakarra; egun laguntza astean 14 orduz ematen da Lea-Artibaiko Mankomunitatean, horretarako Mankomunitateak berak Markina-Xemein udalean atondutako lokaletan. Enkarerrietako Mankomunitateari ere zerbitzua deszentralizatzea aurreikusten da.

¹⁶ Bilboko Udalak tratu txar eta sexu erasoentzako laguntza psikologikoko kasuak Bizkaiko Foru Aldundiko Laguntza Psikologikoko Programara bideratzen ditu, eta Udalak ez ditu haiek Modulu Psikosoziatara (Auzolan, Deustu-San Inazio eta Errekalde) bidaliko, haiekin hitzarmena baitauka, programa horretatik bideratutako kasuei laguntza azkarra ezin eman dietenetan baino.

Gogoeta horiek ikusita, Lurraldean laguntza zerbitzuen banaketa mapa, tokiko erakundeetan kudeatutako programek zer espezializazio gutxi daukaten, eta biktimek laguntza eskuragarria izateko daukaten premia eta eskubidea ikusirik, Lan-taldeak honakoa gomendatzen du:

(10. gom.)

Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza psikologikoko zerbitzuak deszentralizatzeko prozesuarekin jarraitzea hartara iristea errazagoa izateko eta joan-etorriek daukaten disuasio-ondorioagatik biktimak laguntza zirkuitutik ateratzea saihesteko.

B.1.2. Indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko zerbitzuak Bizkaian

Lotutako arazoak dauzkaten emakumeentzako babesari buruz

Ararteko erakundearen "EAEko emakumeen aurkako indarkeriari emandako erantzun instituzionala" txostenak (2003) honako premia azpimarratzen du: "*Egoera oso ahuletan dauden emakume taldeei intentsitate handiagoko laguntza ematea: (...) buruko gaitzak dauzkatenei, toxikomania arazoak dauzkatenei..*", eta ohartarazten du holako taldeek ez daukatela babesik etxeko tratu txarren biktimei ostatu emateko atonduetako lekuetan.

Erakundeen arteko Talde Teknikoaren Gizarte Zerbitzuen azpibatzaordeak Erakundeen arteko Hitzarmenaren Jarraipeneko Batzaordeari aurkeztutako "Etxeko tratu txarren biktimentzako babes eta etxebizitzako baliabideak hobetzeko proposamena"k premia hori jasotzen du, eta horren ondorioz, Batzaorde horrek adostutako "Etxeko tratu txarren biktimentzako babes eta etxebizitzako baliabideak hobetzeko programa (2004-2005)" delakoan, helburuen artean honakoa jasotzen da: "*droga mendekotasun aktiboko arazoak edo buruko patologiak dauzkaten eta behar bezalako estaldura anbulatoriorik ez daukaten emakumeentzako babeseko laguntza hobetzea*" (5. helburua).

Erakundeen aldetik arazoari ematen zaion erantzunaren hobekuntzan aurrera eginez, gogoeta horiek etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako babes baliabideak arautzen dituen irailaren 11ko 148/2007 Dekretuan gauzatzen dira, zeinen artikuluetan xedatzen baita Eusko Jaurlaritzak, esperimendu moduan, "*etxeko tratu txarren biktima izan diren emakumeak berreskuratzeko eta gizarteratzeko zentroa sortuko eta abiaraziko du[ela], intentsitate handiko gizarte babeseko neurriekin, eta babes eta espezializazio maila altua komenigarri egiten duten era askotako gizarte arazoei lotutako premia bereziak dauzkaten emakumeei bideratuta*" (2. artikulua, 2. puntua).

Egun Bizkaian dagoen babes baliabide sarea zenbait arazotatik datozen premia bereziak dauzkaten emakumeei babesa emateko oraindik egokia ez dela ikusita, eta egoera horri erantzun behar

zaiolakoan, kualitatiboki larritasuna daukaten kasuak direlako, eta kopuruari dagokionez ere garrantzitsuak direlako, Lan-taldeak honakoa gomendatzen du:

(11. gom.)

Ahalik eta lasterren, etxeko tratu txarren biktima izan diren eta era askotako gizarte arazoei lotutako premia bereziak dauzkaten emakumeentzako berreskurapen eta gizarteratze zentroa diseinatzeari, sortzeari eta abiarazteari heltzea, etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako babes baliabideak arautzen dituen irailaren 11ko 148/2007 Dekretuan jaso legez (2. artikulua, 2. puntua).

Emakume taldeek egiten duten baliabideen erabilera mailari buruz

Indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntzari dagokionez, ikusten da emakume biktimaren ezaugarriek, dirudienez, desberdintasun handiak dakartzatela hari zuzendutako baliabideetara heltzeari eta haiek erabiltzeari dagokienez (zelako erabilera maila dagoen eta zein diren baliabiderik eskatuenak).

Baliabideetarako heltze eta erabiltzean dauden balizko desberdintasun horien azterketa diferentziala beharrezkoa da, horrek talde guztiei zuzendutako informazio kanpainak bideratzen eta planifikatzen, eta baliabideak eta talde horiekin lan egiten duten langileen prestakuntza egokitzen utziko lukeelako.

Pertsonaren ezaugarrien arabera egiten den baliabideen erabilera berezia ikusarazteko, balizko talde bereziak definitu behar lirateke; besteak beste, honakoak egon litezke:

- Emakume etorkinak
- Emakume ijitoak
- 20 urtetik beherako emakumeak
- 65 urtetik gorako emakumeak
- Lotutako arazoak dauzkaten emakumeak
- Landa eremuko emakumeak
- Etab.

Lan-taldearen aburuz, holako kontuen ikerketari heldu eta azpian dauden eragileak ezagutu behar dira; beraz, honakoa gomendatzen du:

(12. gom.)

Talde berezien baliabideetarako heltze eta erabilera diferentziala aztertuko duten ikerketak egitea, desbideratzeari dagokionez dauden balizko joerak ere ikertuz, eta definitutako taldeek egiten duten erabilera berezia azalduz.

Denboran harrera emateko baliabideen egonkortasunari buruz

Orokorrean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez, tokiko administrazioen jarduerarentzat baliabide materialek eta giza baliabideek denboran daukaten desegonkortasuna ezaguna da, zenbait zerbitzuren ezarpena edo mantenua edo zenbait profesional motaren eskuragarritasuna –adibide gisa, berdintasuneko agenteak aipa daitezke- arloetako erabaki politikoen mende geratzen baitira.

Indarkeriaren izaera ziklikoa, kasu askotan agertzen den bilakaera kronikoa (programa psikologikoetan lagundutako biktimen erdiek baino gehiagok hamar urtetik gora bizi izan dute tratatu txarren egoera), bizi egoeraren ondorioz ohiko bizimoduaren erritmoan oztopo handia den sintomatologia psikopatologiko handiaren balizko aldebereotasuna kontuan hartuz, emakumeak laguntza eskatzen duenean ezin da esku-hartzeko premia atzeratu. Eskatutako baliabidera heltzeko zailtasunak –egoeraren araberako inguruabarrengatik bada ere- eragin oso kaltegarria dauka biktimaren egoeran.

Baliabideei eutsi ez ezik, haien funtzionamendua aztertzea ere komeni da; Bizkaiko Lurralde Historikoko laguntza psikologikoko eta aholkularitza juridikoko zerbitzuei dagokienez, hautatutako kudeaketa formularen erabateko homogeneizatzeari dago, eta prestazioa emateko kanpoko kontratazioa jotzen dute, bai foru erakundeak bai euren zerbitzuak dauzkaten udalek eta mankomunitateek.

Azkenei dagokienez, zerbitzuak kontratatzerakoan agente mota bitara jotzen da, irabazi asmorik gabeko erakundeetara zein merkatuko enpresa edo profesionalengana. Lehenengoei dagokienez, gizarte ekimeneko elkarteak edo kooperatibak dira, eta udalak hitzarmena sinatzen du haiekin baliabidea kudeatzeko. Irabazi asmorik gabeko erakundeek dagokienez, pertsona fisikoak, aukera ohikoena, edo pertsona juridikoak bereizten dira.

Zerbitzuen eskaintzari eustearen garrantzia, eta haren kalitatea baloratuz, Lan-taldeak honakoa gomendatzen du:

(13. gom.)

Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntza zerbitzuen iraunkortasuna eta egonkortasuna bermatzea, horretarako behar diren baliabide materialez eta giza baliabidez hornituz.

Dauden baliabideen hedapen handiagoari buruz

Erakundeek ahalegin handia egiten dute gizartea sensibilizatzeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren biktimentzako laguntzari dagokionez dauden baliabideak eta prozedurak ezagutarazteko informazio eta sensibilizazio kanpainak egiteko, eta horretan baliabide handiak inbertitzen dira.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailak egindako "*Etxeko emakumeen aurkako indarkeria. Bizkaiko Lurralde Historikoko ikerketa baten emaitzak*" (2006) ikerketatik ateratako datuen arabera, Bizkaian bizi diren hamar emakumetatik lauk diote ez dakitela zer egin edo nora jo mota horretako egoera baten aurrean. Proporzio hori are handiagoa da azken urte biotan etxean tratatu txarrak jasan dituztela adierazten duten emakumeen artean: hamarretatik seik diote ez dutela jo ahal izateko prozedura eta baliabide instituzionalik edo beste motakorik ezagutzen.

Erantzun horiek ateratzeko egiten den galdera inbertsonalki egin eta ikerketak erantzunetan ikerketako emakume parte hartzaileen interpretazio faktoreen balizko eragina ukatu ez arren, emaitzek hedapen maila eta baliabideen publizitatearen eragina azpimarratzen dituzte, eta horrela honakoa egiaztatzen da: "*alde handia dagoela Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen aurkako etxeko indarkeria kasuentzako laguntzarentzat dauden emaitza instituzionalen hedapenaren eta emakumek eurek hartzen dutenaren artean*".

Datu horiek hartuta, Gizarte Ekintza Sailak "Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako etxeko indarkeriari buruzko sensibilizazio kanpaina instituzionalen optimizazioa"ri buruzko ikerketa egin du; haren ondorioen artean azpimarratzen da ez dagoela holako kanpainei buruzko informazio sistematizaturik, eta hortik ondoriozta litekeela erakundeen jokabideen logikaren barruan bigarren mailako kontua dela; egoera hori orokorra dela egiaztatzen da –autonomia, lurralde, udal zein estatu mailetan-. Era berean, kanpaina egitea azken helburutzat jotzen da, zein ere diren lortutako emaitzak, haiek ez baitira ebaluatzen. Hori dela eta, ezinbestekoa da sensibilizazio kanpainen plangintzan eraginkortasunaren edo emaitzen ebaluazioa ere sartzeari; ebaluazio horrek, gutxienez, publizitate mezuaren eraginkortasuna, bitarteko planaren eginkizunaren eraginkortasuna eta erakunde sustatzailearen gaineko ezagutza eta oihartzuna jaso behar lituzke informazio eremuetan.

Horrela, Lan-taldeak arlo horretan egiten diren dibulgazio kanpainen ebaluazioa egitearen garrantzia baloratzen du, haien eraginkortasunari buruzko informazioa eman dezaten eta ondorengo jokabideetan hobetzeko elementuak egokitzea eta sartzea ahalbide dezaten. Hedatzeko kanpainak indarkeria prebenitzeari begira daukaten balioa ere azpimarratzen du eta, horregatik, honakoa gomendatzen du:

(14. gom.)

Indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko baliabideen eta prozeduren hedapen kanpainen eraginkortasuna ebaluatzea, herritarrengan orokorrean eta biktimengan eurengan daukaten eragina ezagutzeko; horretarako, publizitate kanpainen plangintzan haien ebaluazioa ere sartu beharko da.

Hobetzeko azterketari buruz

Zerbitzuen erabiltzaileen eta zerbitzuok emateko langile arduradunen iritzia ezagutzea funtsezkoa da zerbitzuok hobetzeko azterketan.

Lan-taldearen aburuz, eremu horretako azterketa norabide bikoitzean bideratu behar litzateke, tresnen diseinuari ("*zelan egin*") eta ezartzeko prozedurei ("*noiz egin*") helduz, norabide biei dagokienez, homogeneizatze irizpideetatik.

Alde batetik, erakundeen arteko mailan tresnak ad hoc (adibidez, galdetegi egituratua) batera prestatzeaz hitz egingo genuke; tresnok oinarrizko agiriak lirateke zerbitzuek laguntzen dieten emakumeen eta laguntza ematen duten profesionalen asetze maila ezagutzeko. Lurrean zerbitzua ematen duten erakunde guztiek erabiliko luketen tresna homogeneoa definitzeak datu homogeneoak eta denboran konparagarriak izatea ahalbidetuko luke.

Bestetik, nahastutako erakundeetan lan hori egiteko prozeduren berdintasuna ezartzeko premia ikusten da. Biktimari dagokionez, lehen laguntzako unea oso ahula da, eta zentzu horretan, zerbitzuari buruz daukan pertzepzioaren gainean jasotako informazioak bere egoera emozionalaren eragin handiegia izan lezake; jarraipen fasea –kalitatezko esku-hartzeari datxekiona-, are denboran tarte luzea uzten duen laguntza ematen zaion unean, ezin hobea izan daiteke informazioa biltzeko, eta, bestalde, laguntza harremanaren prozesuan ibilbidea egin duten pertsonen buruzko informazio egokia jasotzeko bidea eman dezake.

Etxeko tratu txarren biktima izan diren emakumeei emandako laguntzaren etengabeko ebaluazioa egitearen garrantzia azpimarratuz, Lan-taldeak honakoa gomendatzen du:

(15. gom.)

Erabiltzaileen eta zerbitzua ematen duten profesionalen asetze maila ezagutzeko bideak ezartzea, tresnen eta prozeduren homogeneizatzearen ikuspegitik.

B.2. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI BURUZKO DATU BILKETAREN HOBETUNTZA

Hitzaurrea

Emakumeen aurkako indarkeriaren arazoaren ikerketa eta behaketatik ateratako txostenetan, nazioarteko eremutik tokiko eremura, etengabe agertzen eta azpimarratzen da kasuak irizpide homogeenetatik neurtzeko ahalbidetuko duten sistemak eraikitze eta hobetzeko beharra, arazoa ikusarazten eta erarik ahalik eta egokienean prebentzio eta esku-hartze neurriak oinarritzen laguntzeko, informazioa izatea funtsezko elementua baita politikak formulatzeko.

1993an Emakumearen aurkako indarkeria Desagerrarazteari buruzko Aldarrikapenak jaso zuen beharrezkoa dela *"ikerketa sustatzea, datuak biltzea eta estatistikak piltzea, batez ere etxeko indarkeriari dagokionez, emakumearen aurkako indarkeriaren forma guztien maiztasunari lotuta, eta indarkeria horren zioei, larritasunari eta ondorioei, zein hura saihesteko eta haren ondorioak konpontzeko erabilitako neurrien eraginkortasunari buruzko ikerketak sustatzea (...)* Estatistika horiek eta ikerketen ondorioak argitaratu behar dira". 1995ean, Emakumeari buruzko Mundu-konferentziak neurri horien erabilera orokorra gomendatzen du, emakumearen aurkako indarkeriaren zioak eta ondorioak eta prebentzio neurrien eraginkortasuna ikertzeko, *"sexuen arabera bereizitako indarkeriaren tamainari buruzko estatistika eta datu nahikorik ez egoteak programak prestatzea eta aldaketak zaintzea oztopatzen ditu"*ela ikusita.

Europako Batasunaren baitan, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko erregistroak ere baloratu egin dira eta haiek hobetzea gomendatu da, besteak beste, honako foroetan: Gizonek emakumeen aurka darabilten indarkeriari aurre egiteko neurriei buruzko Europako Batasuneko adituen biltzarra (1998); Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Ministroen biltzarra (1999); Europako Kontseiluaren zenbait komunikazio, etab.

EAEko eremuan, Arartekoren erakundeak 2003an aurkeztutako "Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn" txostenean, erakundeen laguntzan antzemandako arazoak biltzen dituen atalean, *"arazo larria datuak erregistratzean, batik bat gizarte-zerbitzuetan"* ikusi eta horri konponbidea bilatzea gomendatzen da¹⁷. Bestalde, Emakunde 2006an, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunaren Legeak¹⁸ beren-beregi agintzen duenari erantzuteko, etxeko tratu txarrei dagokionez Gizarte Zerbitzuak ebaluatzeko burututako ikerketak, egiten duen gomendio sortaren barruan, honakoa adierazten du: *"datuak sistematikoki, homogeneouski eta zorrotzasunez biltzea aztertu eta baloratu ahal izateko eta erabakiak hartzerakoan gida izan ahal izateko"*¹⁹.

¹⁷ Ararteko, "Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn. Arartekoak Legebiltzarrari egindako txosten berezia", 2003, 236. or.. <http://www.ararteko.net/>

¹⁸ Otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako, 51. art.

¹⁹ Emakunde, "Erakundearen erantzuna etxeko tratu txarren aurka EAEko gizarte zerbitzuen eremuan, 2006: Sarrerako atea. Gizarte Zerbitzuen ebaluazioa Etxeko Tratu Txarren kontuetan", 2006, 156. or. <http://www.emakunde.es>

Emakumeen aurkako indarkeria egoerei buruzko datu bilketaren hobekuntza arazoaren eraginari dimentsioa emateko, batera datozen eragileak identifikatzeko, eta biktimen ezaugarriak zehazteko eta haien premiak ezagutzeko beharrak dakar, horrela esku-hartzeko neurriak abiarazteko eta datuetatik ezagupen esanguratsua aterata prebentzio jokabideak burutzeko, eta gerta litezkeen aldaketen jarraipena egin ahal izateko.

Tratu txarren biktima diren emakumeentzako gizarte babesaren esparruan emandako laguntzei buruzko informazio premiak betetzeari begira, informazioa bai maila horretako errealitatearen tamaina ezagutzeko zein gizarte zerbitzuen jarduera ezagutzeko baliotsua baita, 2005ez geroztik Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak, Lurralde horretan, aurreko urtean aholkularitza juridikoaren, laguntza psikologikoaren edo babesaren eremuan esku-hartzea eskatuz erregistratutako kasuei buruzko urteroko informazioa biltzeko prozesuak burutzen ditu. Holako prozesuetan arloan eskuduntzak dauzkaten Lurralde Historikoko foru zein tokiko gizarte zerbitzu guztiek hartzen dute parte, eta lehenago lortzen ez ziren datuak bildu eta zentralizatu ahal izatea ekarri du horrek.

Operazioak agerian utzi du tokiko erakundeetan zailtasunak daudela eskatutako informazioa emateko, datuak erregistratzeko eta erabiltzeko sistemen urritasuna dela-eta, baina datu guztiak ez dira berdinak, oro har biztanleria handia daukaten udaletan erregistratzeko kultura handiagoa eta informazioa tratatzeko eta itzultzeko egitura hobeak ikusten baitira. Orokorrean, Behatokiak arazoak izan ditu datuak biltzeko, hasteko, abiarazitako programetan tratu txarrei lotutako datu banandurik ez biltzeagatik; datuetara azkar eta eraginkortasunez iritsi ahal izatea bermatzen duen euskarri bakarrean ez zentralizatzegatik eta ez sistematizatzegatik; datuak erregistratzeko ohitura falta orokorragatik; eta datuen beharrari buruzko kontzientzia urriagatik; gainera, solaskideek lan zama handia daukate, eta haien jokabide nagusia laguntza zuzenari dagokio. Beste alderdi batzuen artean, honakoari ere antzeman zaio: gizarte zerbitzuen eremuan informazioa biltzeko adostutako, EAEn zabaldutako²⁰, eta arloan lan egiten duten langileek derrigorrez erabili behar dituzten tresnak ez dira erabiltzen.

²⁰ Etxeko tratu txarrei eta sexu indarkeriari buruzko informazioa gizarte zerbitzuen eremuan jasotzeko ereduak.

Biktimen zenbaketari zein datuen sistematizazioari dagokionez, dauden zailtasunen azterketa ikusita, eta emakumeen aurkako indarkeria kontuetan lurraldeko eremuko eragileen jokabideari buruzko informazioa emateko azken helburua kontuan izanda, hausnartzeko eta gomendatzeko hiru arlo handi ezartzen dira:

1. Erakundeetako datu bilketa.
2. Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokitik lurralde mailan eskuratu beharreko gizarte datuak.
3. Lurralde mailako datu bilketa.

B.2.1 Datu bilketa erakundeetan

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontzeptualizazioari buruz

Behatokiak Bizkaiko gizarte²¹, polizia eta justizia eremuetako zerbitzuetatik datozen datuen bilketarekin urtero egiten dituen txostenetan, lehenengoari dagokionez, ikusten da Lurraldeko udal eta mankomunitateetako berariazko programetan indarkeriagatik lagundutako emakume kopuruetan alde handiak daudela.. Tokiko erakundeetan holako arazoak direla-eta zerbitzuetara jotzen duen emakume kopuruari buruzko datu bilketa oso heterogeneoa da, eta agerian uzten du kasuak zenbatzeko erabilitako kontzeptuetan ez dagoela batasunik.

Horrek egoeraren azterketa zorrotza galarazten du, eta ezinezko bihurtzen du udal arloen arteko erkaketa egitea, bereziki, eboluzioaren balorazioa eta egoeraren eta haietan gertatutako aldaketen azterketan oinarritutako jokabideen plangintza.

2005eko azaroaren 25ean, Etxeko Tratu Txarren eta Sexu Erasoen Biktima diren Emakumeei Laguntzeko Erakundearen arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak emakumearen aurkako indarkeria kontuetan erreferentziazko terminologia erabiltzeko proposamena adostu zuen, EAEko Erakundearen arteko Hitzarmen hori sinatu zuten erakundeek erabil zezaten.

Erakundearen arteko koordinazioak emandako neurri hori aurrerapen handia da, emakumeen aurkako indarkeria tratatzerakoan irizpide eta kontzeptu homogeenak erabiltzeari dagokionez, baina Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren jardueraren esparruan egindako datu bilketak agerian uzten du agiria ez dela ezagutzen eta kontzeptuak interpretatzerakoan zalantzak sortzen direla, kasu jakinetarako erabilerari buruzko zalantzak; hori dela eta, Lan-taldeak honakoa gomendatzen du:

²¹ Aholkularitza juridiko, Laguntza psikologiko eta Babes Zerbitzuak

(16. gom.)

EAEko Etxeko Tratu Txarren eta Sexu Erasoen Biktima diren Emakumeei Laguntzeko Erakundeen arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak adostutako "*Emakumeen aurkako indarkeria. Terminologiari buruzko proposamenak*" agiria gehiago zabaltzea.

(17. gom.)

Aholkurako bidea ezartzea gizarte zerbitzuetako profesionalek EAEko Etxeko Tratu Txarren eta Sexu Erasoen Biktima diren Emakumeei Laguntzeko Erakundeen arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak adostutako "*Emakumeen aurkako indarkeria. Terminologiari buruzko proposamenak*" agiriaren erabilera praktikotik eratorritako interpretazio zalantzak eraman eta argitu ahal izateko.

(18. gom.)

"*Emakumeen aurkako indarkeria. Terminologiari buruzko proposamenak*" agiriaren edukia aberastea, adibide praktikoak sartuz –egindako galderetatik eta agertutako zalantzetatik atera litezke-, emakumeen aurkako indarkeria kasuak sailkatzeko eta zenbatzeko lana errazteko.

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak erregistratzeko ohiturari buruz

Arestian aipatu denez, oinarrizko gizarte zerbitzuetan zein babes, aholkularitza juridiko eta laguntza psikologikoko zerbitzuetan emandako laguntzei buruzko datu bilketa sistematikoak funtsezko informazioa ematen du fenomenoaren hobeto ezagutzen joateko.

Orokorrean ez dago datuak sistematizatzeko kulturarik eta, beraz, ezta tratu txarreatik emakumeei emandako laguntzak sistematizatzeko ere, laguntza arrazoi horreetatik eman zein ez. Bizkaiko tokiko erakundeei dagokienez, ikusten da, programen erregistroak egon arren, haietan hartutako kasuen bolumen osoari buruzko datu orokorrak baino ez direla biltzen, baina zehatz-mehatz tratu txarrei buruzko daturik ez dagoela. Bestalde, datuak era zentralizatu eta sistematizatuan biltzen dituzten euskarrien (Urteko memoriak, Programei buruzko txostenak, etab.) urritasunak, informazio hori eskuratzea oztopatzen du eta azkenean lortu arte egin beharreko ibilbidea luzatzen du.

Zerbitzuetatik datozen datuak beharrezkoak dira emakumeen aurkako indarkeriari erakundeek ematen dioten erantzuna eta abiarazitako neurrien irismena neurtzeko, eta laguntza bila jotzen duten eta laguntzen zaien emakumeen kopurua ezagutzeko; informazio hori erabakigarria da zerbitzu premia eta haiei esleitu beharreko baliabideak kalkulatu ahal izateko; horregatik Lan-taldeak honakoa gomendatzen du:

(19. gom.)

Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeen zenbaketa erakundeek kudeatutako gizarte programa bakoitzean sartzea gizarte zerbitzuen eremuan egin beharreko datuen erregistro lanaren baitan, eta informazio hori zentralizatuko duten euskarriak ezartzea.

Emakumeen aurkako indarkeria kasuei buruzko datuak gizarte zerbitzuen eremuan jasotzeko fitxa bateratua betetzeari buruz

Arestiko paragrafoetan aipatu bezala, Lurraldeko tokiko erakundeen zerbitzuetatik datozen datuen bilketari dagokionez Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak egindako ibilbidean, egiaztatzen da, orokorrean, EAEko esparruan adostutako datu bilketarako tresnak, besteak beste, Etxeko tratu txarren eta eraso sexualen biktima diren emakumeentzako laguntza hobetzeko erakundeen arteko hitzarmenaren jarraipenaren esparruan sortutako Erakundeen arteko Talde Teknikoaren Gizarte Zerbitzuen Azpibatzerdeak prestatutako *Etxeko tratu txarren kasuetarako eta sexu indarkeriaren kasuetarako gizarte zerbitzuen eremuan informazioa biltzeko ereduak*, ez direla erabiltzen.

Informazioa biltzeko eredu horiek Erakundeen arteko Jarraipen Batzordeak 2005eko azaroaren 25ean onartutako *Emakumeen kontrako tratu txarren eta sexu-indarkeriaren aurrean jarduteko gizarte zerbitzuetako profesionalentzako gidan* sartzen dira. Datuak biltzeko fitxa bateratuak dira, eta helburua "*biktimekin elkarrizketak egiteko garaian profesionalentzat erreferentzia izatea eta haien lana erraztea (...) eta Autonomia Erkidego osorako datu homogeenak eskuratzea ahalbidetzea, gai horretako politiken eta jokabideen diseinuan ustiatuak eta erabiliak izan ahal izateko*"²².

²² EMAKUNDE, "Emakumeen kontrako tratu txarren eta sexu-indarkeriaren aurrean jarduteko gizarte zerbitzuetako profesionalentzako gida".

Emakumeen aurkako indarkeriaren fenomenoaren konplexutasuna ulertzeko informazio kopuru nahikoa eta hura baliatzea dira beharrezkoak; beraz, biktimei eta erasotzaileei buruzko informazio soziodemografikoaren bilketa areagotzeak, Ereduak jasotzen duen legez, datuen banantze exhaustiboagoa ahalbidetuko luke eta horrek esku-hartze politikak planifikatzeko talderik ahulenak, eta erantzun beharreko eskariak identifikatzen lagunduko luke.

Lan-taldearen ustez, oso garrantzitsua da etxeko tratu txarrei eta sexu indarkeriari buruzko datuak biltzeko fitxa bateratuaren erabilera sustatzea eta hobetzea, horrek, gizarte zerbitzuen eremuan, emakumeen aurkako indarkeria kasuen erregistro sistematikorako esparru komuna ezartzen baitu, eta horregatik honakoa gomendatzen du:

(20. gom.)

Erakunde guztiak engaiatzea gizarte zerbitzuen eremuan lan egiten duten haien profesionalak, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan derrigorrez bete behar denez, etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktime diren emakumeentzako laguntza hobetzeko Erakundeen arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak onartutako *Etxeko tratu txarrei eta sexu indarkeriari buruzko informazioa biltzeko gizarte zerbitzuentzako eredia* ezagut eta erabil dezaten agintzeko.

(21. gom.)

Datuak erregistratzeko eta informazioa gordetzeko –urteko memoriak, programei buruzko txostenak, etab.- sistema informatikoak aipatu *Etxeko tratu txarrei eta sexu indarkeriari buruzko informazioa biltzeko gizarte zerbitzuentzako eredian* jasotako informazio eremuen arabera hobetzea, ereduak biktimari, erasotzaileari eta tratu txarraren ezaugarriei buruzko datu sorta zabala jasotzen baitu.

B.2.2. Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokitik lurralde mailan eskuratu beharreko gizarte datuak.

BGIBren lurraldeko datu bilketarako fitxaren erabilera eta hobekuntzari buruz

EAEko etxeko tratu txarrei buruzko kontuei dagokienez Gizarte Zerbitzuen ebaluazioaren azterketak²³, gomendioei buruzko atalean, honakoa jasotzen du: *"etxeko tratu txarrei buruzko koordinazioan, ezagutzan eta sentsibilitatean sakontzen laguntzea" "hausnarketa eta partaidetza esparru konpartituak"* eratuz.. Honakoa adierazten da: *"Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia bezalako zenbait erakundek adostasun handia biltzen dute hura sortzeari eta gaiari buruz dagoen informazioa biltzeko ekimena zabaltzeko premiari buruzko egokitasunaren gainean. Ezinbestekoa da hausnarketa tratu txarren egoeren eta haien bilakaeraren errealitateari buruzko datuekin sustatzea..."*.

Zentzu horretan, tratu txarrei buruzko udal eta mankomunitateetako programetako datu erregistroaren gaineko lehen azterketak erakusten du Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak lurralde mailan informazio hori zentralizatzeko daukan eginkizuna erakunde horietan barneko datu bilketa prozesuetan elementu dinamizatzailea izan dela. Informazio bilketa bideratzen duen beste erakunde iraunkorra egoteak gizarte eremuan erregistratzeko dinamika sortzen lagundu du, eta horren inguruan zegoen geldotasuna apurtu du; informatzaileen arteko harremanetako udal sarea egituratzea sustatu du; indarkeriari buruzko jokabideen gaineko lurraldeko txostenak egin daitezela lortzen du, eta txosten horiek hobetzeko lan eta hausnarketa agiriak dira; irizpideen eta neurtzeko tresnen homogeneizatzeari laguntzen dio, esku-hartze programak prestatzeko behar diren arazoaren egungo egoera bilakaera ildoak marrazten uzten duen errealitateari buruzko egiazko informazioa eskuratzeko funtsezko elementuak baitira; eta, bestalde, datuak biltzeko prozesuaren beraren bidez antzemandako gabeziak eta disfuntzioak agerrarazten ditu, eta horrela haiek aztertu eta konpontzeko neurri zuzentzaileak ezar daitezke.

Informazio bilketaren proiektua optimizatzeko, erakundeek emandako datuen ekarpena eta erabilera erraztuz, 2007an Behaketak aldian aldiko datu bilketa digitalizatzeko eta sistematizatzeko proiektua garatu zuen. Aurreko urtearen aldean formulario digitalizatuaren erabilera sumatutako hobekuntza nagusiak honako puntuetan biltzen dira: erreferentziazko pertsonarekin etengabe kontaktatzen ibili gabe haren egoeraren jarraipena egiteko aukera; prozesuan parte hartzen duten lagunei datuetara unean bertan iristeko aukera ematea, horrela haien arteko komunikazioa erraztuz; eskuratutako informazioa eta sartzeko dauden datuak ikusarazteko aukera; eta etorkizunari begira aldian-aldian informazioa emango duen eta gizarte zerbitzuen eremutik informatzen duten pertsonen

²³ Emakunde, "Erakundeen erantzuna etxeko tratu txarren aurka EAEko gizarte zerbitzuen eremuan, 2006: Sarrerako atea. Gizarte Zerbitzuen ebaluazioa Etxeko Tratu Txarren kontuetan", 2006, 151. or. <http://www.emakunde.es>

euren iradokizunen eta ekarpenen arabera, eta BGIBren Adierazleei buruzko Lan-taldeak –hura Bizkaiko Lurralde Historikoan datu bilketaren prozesua egiteaz arduratzen den erakundea izanda-egindako hausnarketan eta azterketan oinarrituta, hobetuko den tresna egonkorra sendotzea.

Jokabide horrek informazio gehiago eta hobea, zehatzagoa, solaskideengandik feedback handiagoa, informazio bilketaren prozesuari eta haren zailtasunei buruzko ulermen maila handiagoa ekarri ditu. Bestalde, informazio tresna bat sartzeak akatsak errazago konpontzea, datuak gurutzatzea eta azterketa konparatiboak ezartzea, bestela erregistratu barik geratuko liratekeen xehetasunen eta oharren berri izatea ahalbidetu ditu.

Erakunde informatzaileen erantzuna gehienetan ona izan da; neurri handi batean datu bilketako kultura sendoa sortzen eta emakumeen indarkeriari lotutakoak bestelako kasu eta arazoetatik bereizten lagundu du, eta horrek gaia kokatzen eta dagoen eskaerari, haren aldaketei eta eskaintza hobetzeko aukerari emandako laguntza prozesua sustatzen lagundu du; hori dela eta, Lan-taldeak honakoa gomendatzen du:

(22. gom.)

Gizarte zerbitzuen eremuko erakundeek bil ditzaketen datuak partekatzea, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behaketak berak zentralizatuta kudeatzen duen "Lurraldeko datu bilketako fitxa" bezalako tresna estandarizatuak erabiliz, datuok ustiatzea ahalbidetzeko.

Bestalde, datu bilketako tresna eta prozesua sendotuta, edukiari dagokienez hura hobetu behar litzateke, kontzeptuen azalpenak eta informazioa erregistratzeko eremu berriak sartuz, horrek biktimen ezaugarriei eta inguruabarrei eta laguntza prozesuari buruzko ezagutza bildutako informazio orokorra hobeto ustiatzeko zabaltzen utziko bailuke.

(23. gom.)

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak zentralizatuta kudeatzen duen "Lurraldeko datu bilketako fitxa" hobetzea honakoak gehituz:

A. Kontzeptuei buruzko azalpenak.

B. Honakoei buruzko erregistro eremu berriak:

- biktimen ezaugarri soziodemografikoak (adina, nazionalitatea, arazo gehigarriak...), profilak eta dauzkaten premiak aztertu ahal izateko.
- erasotzailearen ezaugarriak.
- gizarte eremuan egindako bestelako izapidetzeak (adib.: laguntza ekonomikoen izapidetzeak, etxebizitzakoak, etab.)

BGIBren lurraldeko datu bilketaren prozesuari buruz

Datuak biltzeko tresna edukiei eta kontzeptuen azalpenei dagokienez hobetzeaz gain, bilketa prozesuari lotutako bestelako dispositiboek lurralde mailan Behaketaren gizarte datuei buruzko bilketa hobetuko duen esparruaren eraketan aurrera egin dezakete.

Lehenbizi, tokiko erakundeek aldetik berriazko programetan laguntza jasotzen duten indarkeriaren biktima diren emakumeen zenbaketari heltzeko kontzeptuen sakabanaketa ikusita, eta Erakundeek arteko Hitzarmenaren testuinguruan emakumeen aurkako indarkeriari buruz egindako proposamen terminologikoaren erabileran sor daitezkeen balizko zehaztugabetasuna ere ikusita, Lan-taldeak honakoa gomendatzen du:

(24. gom.)

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak dauzkan hedapen eta komunikazio baliabideak – webgunea, Informazio aldizkariak, posta elektronikoa, idazkaritza teknikoak, etab.- honakoetarako baliatzea:

- datu bilketako tresnak eta prozesuak, kontzeptuak argitzeko agiriak, etab. hedatzeko
- emakumeen aurkako indarkeriari buruzko agiri terminologikoak prestatzeko burutzen diren ekimenak hedatzeko
- erakunde informatzaileen datu zenbaketa prozesuan sor daitezkeen zalantzak bideratzeko edo argitzeko.

Bestalde, Behatokiaren datu bilketarako tresna informatikoaren baliabideak informazioa eguneratzeko ahalmena hobetzea ahalbidetzen du, eta horrela kasuen jarraipena areagotu egiten da, datu bilketaren eta ateratako informazioaren hedapenaren maiztasuna areagotuz, urteroko bilketatik seihileko bilketara aurrera eginez, Bizkaiko egoeraren ezagutza eguneratuagoa izateko eta informazioa biltzeko ohitura sortzen edota finkatzen laguntzeko; horregatik, Lan-taldeak honakoa gomendatzen du:

(25. gom.)

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak burutzen duen datu bilketan urteroko maiztasunetik seihileko maiztasunera aurrera egitea, egoeraren aldaketa nagusiari buruzko informazio eguneratuagoa eman ahal izateko.

B.2.3. Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokitik lurralde mailan eskuratu beharreko bestelako datuak

BGIBtik zentralizatuta egiten den aldiari datu bilketan, biktimentzako gizarte laguntzari buruzko datuak ez ezik, justizia eta polizia eremuetako datuak ere biltzen dira. Zentzu horretan, dagoeneko datuak ematen dituztenei batuko zaizkien bestelako iturri instituzionaletatik iritsitako informazioa sartzeko premia ikusten da, Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako indarkeriaren egoera zehazteko; beraz, Lan-taldeak honakoa gomendatzen du:

(26. gom.)

Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako indarkeria egoerentzako laguntzari buruz prestatutako informazioa zabaltzea hari tokiko poliziek horretaz izandako jarduerari buruzko datuak sartuz.

Elkarteen eremutik datorren informazioa ere sartzeko premia ikusten da, Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako indarkeria egoeren aurreko jokabideei buruzko datuak ematen dituzten iturri instituzionalak gehitzeko, eta horregatik Lan-taldeak honakoa gomendatzen du.

(27. gom.)

Bizkaian indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntzan lan egiten duten elkarten jardueratik ateratako datuak ikusaraztea, datuok BGIBk prestatzen duen informazioan sartuz, egun laguntza instituzionalaren datuetan oinarritzen baita.

B.3. PROFESIOALEN PRESTAKUNTZA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI BURUZ

Hitzaurrea

"Europako Batasunaren 2002ko Presidentziaren *Emakumeen aurkako indarkeriaren ondorioak arintzeko eta hura desagerrarazteko jokabide onei buruzko gida* agiriaren arabera, genero indarkeriari buruzko prestakuntza lanpostua eskuratzeko eskatzen diren ikasketetan eta poliziaren eta Estatuko segurtasun indarren zein abokatutzako profesionalen etengabeko prestakuntzako ikastaroetan sartzen da. Bestalde, agiri horretan adierazten da gai hori gizarte zerbitzuetako profesionalentzako etengabeko hezkuntzako ikastaroetan; justizia administrazioko profesionalentzako berariazko prestakuntza ikastaroetan; eta osasun zerbitzuetako langileentzako etengabeko prestakuntzako ikastaroetan agertzen dela. Europako Batzordearen *Combating violence against women. Stocktaking study on the measures and actions taken in Council of Europe member States* (2006: 59-60) txostenean ere adierazten da Espainian, lana eskuratzeko eta ondoren ere, honako profesionalak genero indarkeriari buruzko berariazko prestakuntza jasotzen dutela: abokatuek, poliziek, epaileek, osasun zerbitzuetako langileek, haur eta lehen hezkuntzako irakasleek, kazetariak eta gizarte langileak". (Emakumearen aurkako Indarkeriaren Estatu Behatokiaren urteko txostena, 191. or.). Txosten horrek berak adierazten du, Justiziaren eremuan, Justizia Administrazioaren eremuan lan egiten duten justiziako operadore guztientzako genero indarkeriari buruzko modulu homogeen eta komunak eratu direla, honakoak sartuz: berdintasuna, emakumearen aurkako indarkeria eta genero indarkeria.

Era berean, azpimarratzen da, autonomia erkidegoen esparruan, ez dagoela eskainitako ikastaroei edo erakundeek langileei eskatzen dieten prestakuntza eskakizunei buruzko informazio oso eta eguneraturik, eta horrek zalantzan jartzen dituela prestakuntza horren derrigorrezkotasuna edo prestatzen edo lanean diharduten profesionalak holako ikastaroei egiten dieten jarraipena. Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriari buruz esku-hartze maila guztietako langileentzako, besteak beste, gizarteko esku-hartzeko zerbitzuetakoentzako prestakuntza hobetu eta zabaldu behar da.

Iturriaren arabera, oso kezagarria da ikustea unibertsitateak ez direla aldaketarako eragile eraginkor bihurtu, ez genero indarkeriaren aurkako borroka prozesuan, ez prebentzio alderdian, ez sensibilizazio alderdian, hura funtsezko funtzioa izan arren.

EAEko esparruari dagokionez, unibertsitateko zenbait master abiarazi dira²⁴: Deustuko Unibertsitatearen Emakumeen aurkako indarkeriako esku-hartzeri buruzko Masterra, Euskal Herriko Unibertsitatearen Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko Masterra eta Euskal Herriko Unibertsitatearen Feminismo eta Generoaren gaineko Ikasketei buruzko Masterra. Hala ere, orain arte ikasketa planetako zeharkako edukietan ez dira aukera berdintasuna eta genero politikak sartu, eta etorkizunean ikasleek tratatu txarren biktima direnei laguntzen lan egin lezaketen arlo akademikoetan ere (lizentziaturak eta diplomaturak) ez da emakumeen aurkako indarkeriari buruzko berariazko edukirik sartu.

Zuzenbidetik, psikologiatik, medikuntzatik, gizarte lanetik, etab., curriculumen diseinuetan arazo larri horren ezagutza, azterketa eta esku-hartzea ezkutatu egiten dira. Horregatik, unibertsitateko ikasketa planetan dagokion prestakuntza planifikatzen ez denez gero, kontraesan handian jausten da: alde batetik, gizartearen tratatu txarren arazoak dauzkan garrantzia eta larritasuna azpimarratzen dira, eta bestetik, hutsala eta garrantzirik gabea da ikasketa programetan –ez da beharrezko jakintza ez delako ezinbestekoa-. Horrela, etorkizuneko profesionalek bigarren mailako balioa eman diezaiokete euren prestakuntzan. Estatu Behatokiaren Txostenak jaso legez, "seguruenik, gabezia hori *Lege Integralak*²⁵ egun aurre egin behar dion arazorik larrienetakoa da, eta haren ahalmena murrizten du daukan dimentsio integrala dela-eta".

Oraintxe bertan, 1999an Boloniako Adierazpenarekin hasitako Goi Mailako Hezkuntzako Europako Esparruaren eraikuntza prozesuaren baitan, eta Adierazpen horrek bere helburuak guztiz betetzeko aurreikusi zuen 2010. urtea gertu dagoenean²⁶, unibertsitateko zenbait esparrutatik, zehatz-mehatz Gizarte Lan eta Psikologia arloetatik, egun prestatzen ari diren ikasketa plan berriak egokitzeko dihardute lanean, genero ikuspegia zeharka sartzeko eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko berariazko gaiak ere sartzeko²⁷.

²⁴ Gogoan izan behar da unibertsitateko diplomaturetatik ezin dela masterretara iritsi.

²⁵ Egileon oharra: Aipatutako Legeko 4. artikuluan, hezkuntzako sistemaren oinarri eta balioei buruz hitz egiterakoan, 7. puntu honakoa adierazten da: "Unibertsitateek genero indarkeriari buruzko prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa sartu eta sustatuko dituzte zeharka arlo akademiko guztietan".

²⁶ Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, unibertsitateko irakaskuntza ofizialaren ordenamendua ezartzen duena.

²⁷ EHUko Gizarte Laneko Unibertsitate Eskola, 2008-2009 ikasturtean, Gizarte Lan eta Gizarte Zerbitzuen Arloaren programa eta edukien koordinazioari heltzen dion ekimena ezartzen hasi da, eta bertan arloko gai guztietan genero ikuspegia sartu du. Neurri hori 2004-2205 ikasturtean ANECAk ikuskatzen duen zentroko Ebaluazio Instituzionaletik datorren hitzarmenaren emaitza da.

B.3.1. Prestakuntza erakunde publikoetako giza baliabideen kudeaketari buruz

Langileen hautaketari buruz

Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, bigarren idazpuruan, genero ikuspegia euskal herri botere eta administrazioetan sartzea arautzen du. Horrela, administrazio horien zerbitzurako gaikuntzari dagokionez, 17.4 artikuluan jasotzen du euskal herri administrazioek lan publikora iristeko hautaketa prozesuetako gaietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioari eta administrazio jardueran hura aplikatzeari lotutako edukiak sartu behar dituztela.

Bestalde, prestakuntzari dagokionez, aipatu 17. artikulua, 2. atalean, xedatzen du euskal herri administrazioek eurentzat lan egiten duten langileentzako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko prestakuntza planak prestatu eta egikaritu beharko dituztela, eta sentsibilizazio jarduerak burutu beharko dituztela ardura politikoa daukaten pertsonentzat.

Administrazioetik egindako prestakuntzari heltzeko garaian, zenbait alderdi azter daitezke. Alde batetik, herri erakundeei lotutako langileen birziklapena eta gaikuntza; horri gehienetan euren langileei zuzendutako Urteko Prestakuntza Planen barruan heltzen zaio erakundeetatik –eurek antolatutako jardueren bidez, edo euren langileei bestelako erakundeetatik -profesionalen elkargoak, unibertsitatea, bestelako administrazioak, etab.- heltzen zaizkien gaietarako sarbide erraztuz-.

Bestalde, lanpostuetarako deialdi publikoen baitan egiten den langile hautaketari dagokionez, gaien eta prestakuntza eskakizunen definizioaz hitz egingo genuke. Kasu orotan, aukera berdintasunari eta genero politikei buruzko gaiak sartu beharko dira, eta etxe barruko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntza eskatzen duten lanpostuetan, legeari, justiziari, poliziarri, osasunari, psikologiarri eta gizarteari buruzko alderdiak behar beste jaso beharko dira; behar den guztietan, gaiari buruzko prestakuntza edota esperientzia eskakizun bereziekin osatuko dira.

(28. gom.)

Herri Erakundeek sustatutako lan publikoaren eskaintzetan sartutako plazen deialdi guztietako gai-zerrendetan aukera berdintasunari eta genero politikei buruzko gaiak sartzea.

(29. gom.)

Herri erakundeek sustatutako lan publikoaren eskaintzetan sartutako plazen deialdi guztietako gai-zerrendetan, etxean indarkeria jasan duten emakumeei laguntza ematen lan egitearekin zerikusia duten espezialitateetan, honako aspektu hauei buruzko gaiak sartu: lege arlokoak, judizialak, osasun arlokoak, psikologikoak eta/edo sozialak. Gai hauetan, kasu bakoitzean behar den sakontasuna eta espezialitatea eskatuko da; eta beharrezkoa denean, gaiari buruzko prestakuntza edota esperientzia eskakizun bereziekin osatzea.

Programa, zerbitzu eta prestazioen kontratazio, hitzarmen edo itunei buruz

Hirugarrenez, administrazioak zerbitzu programa edo jarduera bat zerbitzuak emateko kontratu baten esleipenaren bidez burutzen duen egoerak aipatu behar dira. Holakoetan, kontratuaren gaia etxe barruko indarkeriaren biktima diren emakumeak helburu dituen jarduera profesional bati lotuta dagoenean -berariaz zein giza talde handiago baten testuinguruan talde moduan sartuta egoteagatik-, kontratazio lehiaketaren baldintza-agirietan xedatutako eskakizunen barruan enpresa edo erakunde esleipendunak programaren esku jartzen duen talde profesionala osatzen dutenek frogatu behar dituzten prestakuntza eta esperientzia eskakizunak eskatu behar lirateke. Horrela, titulu eskakizun orokorrekin batera, haietako bakoitzean frogatu beharreko prestakuntza gaiak eta gutxieneko orduak, eta lan esperientziaren barruan eskatutako arloak eta denbora definituko dira.

Zentzu horretan, etxe barruko tratu txarren eta sexu erasoaren biktima diren emakumeentzako laguntza hobetzeko Erakundearen arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordean, 2005eko apirilaren 20an, *Gizarte zerbitzuetan etxe barruko tratu txarren eta sexu erasoaren biktimentzako zerbitzu profesionalak emateko espezializazio premiari buruzko hitzarmena* hartu zen. Hitzarmen horren bidez, Jarraipen Batzordea osatzen duten Erakundeek "betetzeko ezagutza eskakizun bereziak eskatuz edo eraginkorren deritzoten moduan, zuzenean edo zeharka kudeatzen dituzten zerbitzu publikoetan etxe barruko indarkeriaren eta sexu erasoaren biktimentzako laguntza zuzenean lan egiten duten profesionalen esperientzia edota gaikuntza bermatzeko konpromisoa hartzen dute".

(30. gom.)

Administratziotik tratu txarren biktimentzako laguntza kontuetan zerbitzuak ematen dizkioten enpresa edo erakundeei horretarako definituta leudekeen prestakuntza eta esperientzia eskakizunak betetzeko eta egiaztatzeko eskatzea, programa emango duten langileei dagokienez.

Horrela, prestazioa kontratu publikoaren esleipenaren formula pean gauzatu, zein lankidetz hitzarmen bat izenpetuz, edo dirulaguntzaren bat emanez burutu, administrazioak, zerbitzuari atxikitako profesionalek frogatu beharreko titulu eskakizunekin batera, bakoitzean frogatu beharreko prestakuntza gaiak eta gutxieneko orduak, eta lan esperientzia bezala eskatutako arloak eta denbora definituko ditu.

Bestalde, administrazioak zerbitzua emango duen erakunde edo enpresari talde profesionala osatzen dutenen ordezkapena edo aldaketa egin behar den bakoitzean, aldaketa hori behar bezala jakinarazteko eta aldez aurretik, dagokion "curriculum vitae"ren bitartez proposatutako pertsonak eskakizunak betetzen dituztela frogatzeko eskatuko dio.

Langileen trebakuntza eta prestakuntza birziklapenari buruz

EAEko esparruan, herri erakundeei atxikitako langile publikoei zuzendutako Urteko Prestakuntza Planetan sartutako prestakuntza askotan Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen –HAEE- bitartez antolatzen da, eta plangintza horien barruan zuzenduta dauden langile premiei erantzuteko definitutako prestakuntza ekintzetan sartzen dira; horrela, aukera berdintasunari, genero politikei eta, zehatzago, etxe barruko emakumeen aurkako indarkeriari dagokienez, urtero programazioetan ezarritako ikastaroak burutuko dira. Gainera, Emakunderen zuzendaritzapean, EAEko administrazioetako langileei zuzendutako Biltzarrak, Jardunaldiak edota Ikastaroak antolatzen dira, erakunde horietan prestakuntza jarduerak koordinatzen dira, eta profesionalei eta orokorrean herritarrei zuzendutako jokabideak abiarazten dira.

Herri administrazioen zerbitzurako langileen gaikuntza eta prestakuntza birziklatzeari lotutako jokabide esparrua hura izanda, Lan-taldeak honakoa gomendatzen du:

(31. gom.)

Erakunde bakoitzean eremu bakoitzeko prestakuntza premiak jasoko dituen urteko Prestakuntza Planak prestatzea, eta haien diseinuak premiei eraginkortasunez erantzutea. Plan horien barruan, helburuak, edukiak eta hartu dituzten pertsonak eskuratutako ikasketa maila betetzeari dagokionez, emandako ikastaroen, prestakuntza ekintzen eta prestatzaileen ebaluazio planok bultzatzea eta orokortzea, eskaintza hobetu ahal izateko, bai arloei eta gaiei zein irakasleei dagokienez.

(32. gom.)

Prestakuntza planen hartzaileen artean indarkeriaren biktima diren emakumeak haien azken erabiltzaileak guztiz edo zati batean diren taldeentzako laguntza programak kudeatzen edo zerbitzu zuzenak ematen dituzten pertsonak sartzea.

(33. gom.)

Prestakuntza profesionalei ez ezik politikariei eta zerbitzuen kudeatzaileei ere zabaltzea, kasu bakoitzean egoki irizten zaion sakontasun mailarekin.

(34. gom.)

Anbizio handiagoko prestakuntza ekimenei heltzeko erakundeen arteko koordinazioa indartzea.

B.3.2. Prestakuntza ekintzen alderdi orokorrak

Estatu Behatokiaren Txostenean profesionalei zuzendutako emakumeen aurkako indarkeriari buruzko prestakuntza ikastaroak osorik eta eguneratuta ezagutzeko eta haien eraginkortasunari buruzko informazioa izateko garrantzia azpimarratzen da. Zentzu horretan, prestakuntza ekintzak euren helburuak, edukiak, hartzen dituzten pertsonak lortutako ikasketa maila betetzeari dagokionez, prestakuntza ekintzak ebaluatzeko garrantzia ere bai.

Aipatu agiriaren arabera, funtsezkoa da tratu txarren aurkako borrokan engaiatutako profesional guztien prestakuntza ziurtatzea, eta etengabeko prestakuntzaren eredupean, hura gaiko adituek ematea talde profesional guztien gaikuntza egokia lortzeko.

Aurrerago adierazten da, horrez gain, garrantzitsua dela profesionalentzako prestakuntza hori erakundeetatik holako taldeentzako laguntzan zuzenean lan egiten duten langile teknikarien gaikuntza prozesuan sartutako modulu berezi eta espezializatu hutsa ez izatea, ezpada, zeharkako prestakuntzaren bidez, erakundeen gaikuntza prozesu osoan egotea eta jokabideei ikuspegi ez androzentrikoa erabiltzeari buruz irakastea.

(35. gom.)

Erakundeen arteko koordinazioa indartzea ezagutza trukea sustatzeko. Horretarako foro moduko tresnak izatea eremu instituzional orotako profesionalak elkarri zalantzak eta kasuak argitu ahal izateko.

(36. gom.)

Kasu praktikoak eta jokabide onak dauzkaten prestakuntza materialak sortzea eta hedatzea.

(37. gom.)

Prestakuntza eta informazioa uztartzea. Prestakuntza jardueren diseinua dagoen baliabide sarea, lege berrikuntzak, genero indarkeria kontuetako esku-hartzearen lanbide eremua osatzen duten pertsonak hedatzeko, elkarteak ezagutzeko, etab. baliatzea.

(38. gom.)

Materialak berritzea: bideoak, audioa, material idatzia, irudiak, web agiriak, etab. erabiltzea.

(39. gom.)

Online prestakuntza eta zuzeneko uztartzea. *Online* prestakuntzak denbora optimizatzen du, baina zuzeneko prestakuntzak informazio eta esperientzia trukaketa azkar eta sakonagoa ahalbidetzen du, eta itunak eta sareak ezartzea errazten du; beraz, eredu biak uztartzeak prestakuntzaren ahalmena areagotzen du.

B.4. ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA KONTUETAN

Emakumearen aurkako indarkeria desagerrarazteko beharrezkoa da erakundeek (...) neurri hitzartuak eta koordinatuak hartzea. Ahalegin multisektorialak koordinatzeko behar beste baliabide daukan mekanismo ofiziala ezarri behar da, ahal izanez gero instantzia politikoen maila gorenean.

Indarkeriari eta osasunari buruzko mundu txostena. Osasunaren Mundu Erakundea

Hitzaurrea

Emakumeen aurkako indarkeriaren aurreko erakundeen erantzunaren egokitasunak jokabide eredu koordinatua, diziplina artekoa, hura agertzea prebenitzeari, eta haren ageriko egoeren aurreko esku-hartzeari heltzeko eremu desberdinetatik datozen baliabideak eta eragileak mugiaraziko dituen eskatzen du.

Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osoko Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoak erakundeen arteko koordinazio maila handia eskatzen du, printzipio gidarien artean -2. artikuluan jasota- honakoa dio: "botere publiko guztien mota orotako baliabideak eta tresnak genero indarkeria gertaeren prebentzioa eta, hala balitz, haien errudunentzako zigor egokia ziurtatzeko koordinatu".

Jokabide protokoloak garatuz, Legeak ezartzeko ardurak daukaten organoen arteko koordinazioa eraginkor bihurtu nahi du, eta horregatik asko dira abiarazi zenetik helburu horrekin sinatutako agiriak: bai ministerio sailen artean, bai Estatuko Administrazio Orokorraren eta Autonomia eta Tokiko Administrazioen artean, bai erakundeen artean. Jokabideen koordinazioak batera esku hartzeko ildoak zehaztea, sail eta erakundeen arteko elkarlana, erreferente komunak ezarriz erantzuna homogeneizatzea, etab. ahalbidetzen ditu, arazoari erantzun oso eta eraginkorra emateari begira.

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren eremuan, **Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak**, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun orokorrari dagokionez, elkarlana eta koordinazioa euskal herri administrazioen jokabidearen printzipio gidari bihurtzen ditu, eta ondoren, 62. artikulua bidez, indarkeria kontuetan zehazten du, administrazioek, dagokien lurralde eremuan, euren errealitate zehaztutara egokitutako elkarlan hitzarmenak eta jokabide protokoloak bultzatu behar dituztela xedatzen duenean.

Zalantza barik, 2001eko urrian, Emakunderen ekimenez Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko agintari gorenek sinatutako **Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakundeen arteko lehen hitzarmena** inflexio-puntua izan zen; sinatzaileek honakoak ordezkatu zituzten:

- Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioa
- Epai-boterearen Kontseilu Nagusia
- Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Fiskaltza
- Arabako Foru Aldundia
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Eudel
- Legekarien Euskal Kontseilua
- Medikuen Euskal Kontseilua

Hitzarmenaren helburua honakoa da: "etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktimezako laguntzarekin zerikusia daukaten erakundeen arteko koordinazioa hobetzea eta Euskadiko Autonomia Erkidego osoan biktimei eurei laguntzen eta erasotzailea epailearen aurrean jartzen lagunduko duten jokabide ereduak ezartzea".

Hitzarmenaren baitan jokabide protokoloa dago; bertan, holako kasuetan profesionalek jarraitu beharreko jokabide ereduak eta irizpideak ezartzen dira, bai bakoitzaren arloko lanari dagokionez (osasuna, polizia, justizia, gizartea), bai erakundeen arteko harremanei dagokienez.

Haren jarraipena eta ebaluazioa egiteko organoa izateko, Jarraipen Batzordea sortu zen, erakunde sinatzaileen ordezkariak osatua. Jarraipen Batzordeari, zehazki, honako funtzioak esleitzen zaizkio: Hitzarmeneko edukien erabilera aztertzea, erakunde sinatzaileei haren ezarpena eraginkor bihurtzeko proposamenak egitea, jokabide bateraturako eta esku-hartzeak koordinatzeko proposamenak egitea, jokabide protokoloaren edukiak hura indarrean dagoen bitartean sortutako ekimen eta inguruabar berrietara egokitzeko proposamenak egitea, eta ekitaldi bakoitzaren amaieran Hitzarmenaren edukien betetze mailaren jarraipen eta ebaluazioko urteko txostena egitea.

Bestalde, Erakundeen arteko Talde Teknikoa ere sortu zen, Jarraipen Batzordearen kideei euren funtzioak ondo betetzeko behar den laguntza teknikoa emateko; taldea Hitzarmenean parte hartzen duten erakundeetako langile teknikoek osatzen dute, eta Emakundek koordinatzen du.

Asko dira 2001ean agiria sinatu zenetik burutu diren jokabide bateratuak: ezartzeko urteko plangintzak; jarraipen eta ebaluazioko urteko txostenak; erakundeen arteko kanpainak; Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako segurtasun plana (2002-2004); gizarte zerbitzuetako profesionalentzako jokabide gida; datu bilketarako fitxa bateratuaren diseinua; emakumeen aurkako indarkeriari buruzko proposamen terminologikoa; etab.

Jarraipen Batzordeak 2002ko azaroaren 22an onartu zuen aipatu Segurtasun Planean dauden xedapenak betetzeko, gizarte babeseko esku-hartze eremuaren neurrien artean honakoa jasotzen da: "'Emakumeen aurkako Indarkeriaren aurkako Euskal Udalen Sarea sortzea", 2005eko otsailean Emakunderen eta Eudelen arteko Elkarlan Hitzarmena sinatu zen hura abiarazteko.

2005ean, Emakundek Aholkularitza Batzordea ere sortu zuen **EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunetako IV. Plana** prestatzeko irizpideak eta gomendioak definitzeko. Koordinazio atalaren barruan, Batzordeak "koordinazio egiturak indartzeko eta erakundeen arteko hausnarketa eta plangintza bateratua sustatuko duten mekanismoak sortzeko premia"²⁸ agertzen du.

Gainera, Erkidegoan, zenbait **protokolo sektorial** ezarri dira: Gizarte zerbitzuen eremuan etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eraginkortasuna koordinatzeko protokoloa (2004); Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osoko Neurriei buruzko Legearen eta Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko Aginduaren eraginkortasunerako lurraldeko koordinazio protokoloak (2005); Etxeko tratu txarren aurreko osasun protokoloa (2000); etab.

EAEen eragile guztiak emakumeen aurkako indarkeriari heltzeko koordinatzeko dagoen esparrua hura izanik, atal honetan bildutako gomendioen oinarritzko erreferentea Erakundeen arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordetik eta Erakundeen arteko Talde Teknikotik burutzen ari den jokabidea da, eta jasotako gogoetak bat datoz bertan ezarritako gomendioaren oinarritzko ildoekin eta indartu nahi dituzte.

²⁸ Emakunde, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. plana. VIII. legealdiko ildoak.

Proposamenak egiteko azterketako hiru arlo ezarri dira:

1. Koordinazio eta ezarpen orokorrari buruzko protokoloak
2. Tokiko koordinazio eta ezarpenari buruzko protokoloak
3. Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren jarduera

B.4.1. Koordinazio eta ezarpen orokorrari buruzko protokoloak

Txosten honetan jaso legez, Erakundeen arteko Hitzarmenak jokabide prozedura homogeneous ezartzen ditu EAEn, etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktimentzako laguntza hobetzeko; eskuhartze instituzionalaren funtsezko elementua da (baliabideen garapenean eta jokabide taktikei buruzko hitzarmenean) gure Erkidegoko emakumeen aurkako indarkeria egoeren aurrean eta, gaur egun, erakundeen arteko koordinazioa indartzeko, **Etxeko tratu txarren eta sexu indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntza hobetzeko erakundeen arteko bigarren hitzarmena** prestatu da; 2008ko maiatzaren 28an onartu zuen Jarraipen Batzordeak, eta izapidetze administratiboko azken fasean dago.

Bestalde, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, 51. artikuluan, Emakunderi aldian-aldian "EAEn emakumeen aurkako indarkeria kontuetan dauden baliabideen eta programen eraginkortasunaren eta irismenaren ebaluazioa" egiteko eskatzen dio. Ebaluazio horri bost fasetan ekitea proiektatzen da 2006-2010 aldirako, eta orain arte gizarte, justizia eta polizia arloak ikertu dira.

Premisa horietan oinarrituz, Lan-taldeak honakoa gomendatzen du:

(40. gom.)

EAEn indarkeria kontuetan dauden programen eta baliabideen ebaluazioari etxeko tratu txarren edota sexu erasoen biktima diren emakumeei laguntzeko baliabide espezializatuen balizko gabeziak ezagutzeko sistema iraunkorra iriztea, ezagutza horretatik baliabideak, arlo guztietan –nagusienak gizarte, justizia, polizia eta osasun arloak izanik-, eskuragarri egon daitezen ziurtatzeko joka dadin, eta dagoeneko daudenen jarraipenean lan egin dadin.

Erakundeen arteko hitzarmen horien pean, biktimentzako laguntza sistema jardun arlo guztietan –gizartea, justizia, polizia, osasuna- ordena daitezke; arlo guztien ahalegina behar da emakumea laguntza ibilbidera iristen denean, eta ondoren ere, laguntza osoa eman ahal izateko. Sistemako operadoreekin izandako lehen kontaktuak jarraian irekiko den prozesua baldintzatuko du: hasierako

harremanaren edukiak eta dinamikak ondoren jarraitutako bideari eragingo diote, biktimak lehen laguntza horri buruz zeuzkakeen itxaropenak ere betetzearen arabera.

Orokorrean, emakumeak bizi izandako inguruabarrek laguntza zirkuituan arlo batetik edo bestetik sarraraziko dute, eta gizarte, polizia, justizia edo osasun instantzietatik izan, oso garrantzitsua da lehen uneotan emakumeak jo dezakeen baliabide eta zerbitzuei buruzko informazioa jasotzea emandako laguntzak: erakunde hartzaileari dagozkionei buruzkoa ez ezik, laguntzan parte hartzen duten gainontzeko eragile instituzionalen titulartasunaren mendekoei buruzkoa ere bai.

Horretarako, beharrezkoa da etxeko tratu txarren edota sexu erasoen biktima diren emakumeak lehen unean jasotzen dituzten erakundeek beharrezko informazio hori izatea eta hura behar bezala helarazi ahal izatea, dauden baliabideen berri izatea biktimarentzat onuragarri gerta dadin. Gure ustez oso garrantzitsua da, laguntza sisteman gizartekoa ez den erakunde batetik sartuz gero, biktimari eskuragarri dauden gizarte baliabideei buruzko informazio argia ematea, batez ere babes, laguntza psikologiko eta aholkularitza juridikoari dagokienez.

Horregatik, komenigarria da indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntzan diharduten erakundeek laguntza ibilbidean euren funtzioaren azalpena jasotzen duen informazioa eta euren esku-hartze eremuan eskuragarri dauden baliabideei buruzkoa indarkeriari antzematen eta heltzen parte hartzen duten gainontzeko erakundeek ematea, holako eragileek prozesuan parte hartzen duten gainontzeko erakundeek betetzen dituzten funtzioak hobeto ezagutzeko, eta informazio hori biktimei ere bideratzea.

Horrela, BGIBren Adierazleei buruzko Lan-taldeak, erakunde horiek biktimentzat dauden berariazko baliabideei buruzko informazio osoa –eta guztientzat homogenea- izatearen garrantzia baloratu, honakoaren garrantzia azpimarratzen du:

(41. gom.)

Etxeko tratu txarren edota sexu erasoen biktima diren emakumeak lehen unean jaso litzaketen erakundeek eskuragarri dauden baliabideei buruzko informazio homogenea eta etengabe eguneratua izatea; eta prestakuntza ekintzak egiteko, dibulgazio materialak prestatzeko eta haiek etengabe eguneratzeko eta zabaltzeko premia indartzea.

Eta ildo beretik:

(42. gom.)

Berdintasun eta emakumeen aurkako indarkeria kontuetan berariazko ezagutzak dauzkaten Gizarte Laneko profesionalak gizarte zerbitzuetakoak ez diren bestelako eremu instituzionaletan eta biktimengana zuzenean iristeko eremuetan egoteko premia aintzat hartzea.

Esku-hartzeko jarduerak agerian uzten du zer garrantzitsua den erakundeen arloen arteko komunikazio joan-etorriak instrumentatzea. Indarkeriaren biktima diren eta laguntza behar duten emakumeen kasuei buruzko informazioa erakunde batzuen eta besteen artean, arlo batzuen eta besteen artean helaraztea, zerbitzuek euren laguntza hobetzeko faktorea da, horrela saihesten baita kasuen aurrekariak ez ezagutzea eta, orokorrean, eginkizunak bizkortzen baitira.

*Genero indarkeriaren aurkako babes neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoaren ezarpena ebaluatzeko txostenak*²⁹ jasotzen du, zentzu horretan, beste lurralde esparru batzuetan urratsak eman direla, gizarte, justizia, eta osasun arloetatik datorren informazioa biltzen duten tresnak sortuz, hala nola, Asturiasko Printzerrian, non 2007ko uztailetik holako erregistroa baitabil; edo Nafarroako Foru Erkidegoan ildo horretatik garatu nahi den esperientzia.

Esperientzia horiek ikusita, Lan-taldeak honakoa gomendatzen du:

(43. gom.)

Koordinazio tresnak hobetzea, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, laguntzan diharduten erakundeek kasu bakoitzean hartutako neurriei buruzko informazioa bilduko duen; erakundeoi informazio hori partitzen utziko dien; eta arazoaren neurria emango duen estatistika erabilera ahalbidetuko duen datuen erregistroa sortuz.

Koordinazio prozedurak hobetzeko datuak esparru partekatuan biltzea erabilgarria izan daiteke ezarritako sisteman disfunczioak saihesteko. Orokorrean prozeduren eta erabileren azterketa behar da disfunczioei eta, beraz, laguntzan parte hartzen duten erakundeen arteko koordinazioan hobetzeko arloei antzeman ahal izateko. Helburua, sistema malgu baten esparruan, azterketaren emaitzak ekintza koordinatuko prozedurak egokitzeko bidea ematea da, antzemandako nahasteak konpontzeko; hori dela eta, Lan-taldeak honakoa gomendatzen du:

²⁹ Espainiako Gobernuak, Berdintasun Ministerioak, Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren ezarpenaren ebaluazioa. Genero indarkeriaren aurkako babes neurriak. Hiru urterako txostena.

(44. gom.)

Sistemaren disfuntzioen trataerarako erakundeen arteko koordinazioa egun dauden bideen edo horretarako eraiki litezkeen bidez indartzea, haien ebaluatzeko proposamena ezartzea aintzat hartuz, haien identifikazioa eta haien agertzea dakarten eragileen bilaketa, konponbide proposamena eta biktimentzako laguntza prozesuan parte hartzen duten eragileen arteko hedapena eraginkorrak eginez.

Zentzu horretan, adibide batek biktimaren konfidentzialtasuna babestearekin du zerikusia. Emakumearen segurtasuna laguntza sistemaren helburuetako bat da, baina egiatan ikusten da zenbait akatsek segurtasun hori kolokan uzten duten datu garrantzitsuei ihes egiten uzten dietela, erasotzaileak eskura ditzakeen agirietan biktima aurkitzen uzten duten datuak islatuz, bai gizarte laguntzak eskuratzeko izapidetze batzuk bete behar direlako, bai erasotzailea epai kontuetan interesa daukan aldea izateagatik, besteak beste.

Hori dela eta, Lan-taldeak honakoa gomendatzen du:

(45. gom.)

Biktimaren konfidentzialtasuna bermatzea dagokion informazio pertsonala era pribatuan gordez; erakundeek sortzen dituzten eta prozesuan parte hartzen duten txostenen ibilbidea ikertzea, biktima aurkitzeko bidea ematen duten datuak erasotzailearentzat prozesuak iraun bitartean, edo ondoren, eskuragarriak ez direla ziurtatzeko; eta dagokien erakundeek horri buruz adostutako neurrien jarraipena egitea.

Zentzu horretan, oso interesgarritzat jotzen da biktima taldeek elkarrizketa eta koordinazio mahai orokorretan parte hartzea –tokiko esparruan gertatzen den bezala-, sistemaren funtzionaltasunari buruz dauzkaten ezagutzari eta esperientziari jarraiki; edota ezagutza hori, protokoloak egokitzeko eta hobetzeko irizpide gisa, aintzat hartzea ahalbidetzen duten mekanismoak bideratzea.

(46. gom.)

Elkarrizketa edo koordinazio mahaietan biktima taldeak aintzat hartzea, edo sistemaren funtzionaltasunari buruz daukaten ezagutza ezagutzea, baloratzea eta erabiltzea ahalbidetuko duten mekanismoak bideratzea, protokoloetan jasotako esku-hartzeen eraginkortasuna egokitzeko eta hobetzeko elementu bezala.

B.4.2. Tokiko koordinazio eta ezarpenari buruzko protokoloak

Arazoak politikaren eta komunikabideen agendetan protagonismoa eskuratzen duen heinean, administrazioetatik programak, plan bereziak, giza baliabideak eta mota guztietako baliabideak bideratzen dira erakundeek indarkeriaren biktima diren emakumeei emandako erantzuna hobetzera. Hala ere, aipatzen ari den bezala, arazoa hain da korapilatsua ezen konponbideak, jokatzera ez ezik, jokabide estrategiak koordinatzea eta esku-hartzeko prozedura homogeenak ezartzea eskatzen baititu, biktimei babes osoa bermatu ahal izateko.

BERDINSAREA- Berdintasunaren aldeko eta indarkeriaren aurkako euskal udalen sarea –egun arte EAEko 42 udal atxiki zaizkio, haietako 32 Bizkaikoak (%76,2)- Tratu txarren biktima diren emakumeentzako Segurtasun Planean (2002-2004) jasota neurriari jarraituz sortu zen. Sarearen helburua honakoa da: "tokiko administrazioetatik berdintasunaren alde eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurka kudeatutako programak eta zerbitzuak bultzatzea, sendotzea, koordinatzea eta ebaluatzea, jokabide eta ebaluazio irizpide bateratuak definituz; eginkizun hori tokiko ekintza publikoaren maila guztietan sartzen den eta Sarea haien eta udalez gaindiko bestelako erakundeen arteko lotura moduan darabilen jokabide integralean kokatzen da"; bere Oinarrizko Agirian, burutu beharreko ekintzen artean, honakoa jasotzen du: "berdintasunari eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako borrokari lotutako udal protokoloak egitea bultzatzeko tresnak prestatzea" (5. ekintza).

Berdinsarea tokiko esparruan emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko kontuetan jokabidea dinamizatzeko esparrua da, esperientzia trukaketa erraztuz eta **tokiko protokoloen** koordinazioa eta prestaketa sustatuz; gaur egun, hogeita hamar bat udal eta mankomunitate biltzen ditu, etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktima diren emakumeentzako laguntzarako tokiko prozesuen hobekuntzari eta, hala balitz, prestatzeko prozesuari buruzko lan-taldeetan.

Adierazpen horri erantzuteko, 2006ko urrian Eudelek, Emakunderen laguntzarekin, prestatutako *Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktima diren emakumeentzako laguntza hobetzeko tokiko protokoloak eta neurriak hartzeko ereduaren gida* argitaratu zen.

Gida hori EAEko udaletako zerbitzu teknikoei ezagutarazteko eta sakonki azaltzeko, HAEE-Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak, Tokiko Administrazioetako langileentzako 2006 eta 2007ko Prestakuntza Planen barruan (Eudel-HAEE hitzarmena), prestakuntza jardunaldiak burutu zituen aurtengo azaroan eta 2007an.

Horrela, tokiko esparruan indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntzan parte hartzen duten arloen eta profesionalen koordinazioak, Bizkaian berria izanda, aurrera egiteko joera dauka. 2003an Arartekoaren *Emakumeen aurkako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn* ikerketak tokiko jokabide protokolorik ez zegoela gaztigatzen bazuen, Busturialdeko mankomunitatearen salbuespenarekin, gaur egun, Lurraldean baliabideen antolaketari lehentasuna eman dioten eta emakumeen aurkako indarkeria egoerei koordinatuta erantzuteko tresnak prestatu dituzten beste hamar erakunde aipa ditzakegu (Abanto-Zierbena, Arrigorriaga, Basauri, Bilbo, Gordexola, Leioa, Ondarroa, Urtuella, Santurtzi eta Zallako udalak). Horrek Lurraldeko herritarren %48,2ko estaldura indizea esan nahi du (549.848 lagun). 15 tokiko erakunde gehiagotan (14 udal eta zazpi udaleko mankomunitate bat) horretarako prozesua dago zabalik, eta horrek bidea ematen du genero arazoari heltzeko eraginkortasun gero eta handiagoaz, gizarte sentsibilitate handiagoaz, eraginkortasun handiagoaz eta baliabideen erabilera hobez hitz egiten hasteko.

Gogoeta horiek ikusita, Lan-taldeak honakoa gomendatzen du:

(47. gom.)

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea (62. art.) betez, tokiko erakundeek euren lurralde esparruan, esparru orokorreko hitzarmenak eta protokoloak garatu, zehaztu eta euren errealitateetara egokituko dituzten elkarlan hitzarmenak eta jokabide protokoloak hartzea sustatzea.

(48. gom.)

Eudelek Emakunderen laguntzaz prestatutako *Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktima diren emakumeentzako laguntza hobetzeko tokiko protokoloak eta neurriak hartzeko eredu*en gida erreferentzia hartzea tokiko esparruko protokoloak prestatzen laguntzeko.

(49. gom.)

EAEn tokiko protokoloen prestaketa bultzatzeko eta laguntzeko ezarritako lan ildoak (Berdinsarearen baitako lan batzordeak, helburu horretarako tresnen prestaketa eta hedapena) jarraikortasuna ematea; eta abian dauden prozesuen jarraipena bizkortzea arlo horretan lortutako aurrerapenak ezagutzeko.

Erakunde guztien aldetik eremu horretako errealitate zehatzera egokitutako jardunbide koordinatuaren oinarriak jartzen dituzten tokiko protokoloak, batzuetan, ahalmena galtzen dute erakunde batzuen parte hartze murriztagatik, Erakundeen arteko Hitzarmenean sartuta egonda eta tokiko esparruko laguntzaren ibilbidearen parte izanda, udal protokolo horiei engaiamendu txikiagoko erantzuna ematen dietelako, parte hartzen ez dutelako edo prestatzeko prozesuan indar gutxiagorekin parte hartzen dutelako.

Gizarte zerbitzuak, berdintasun arloak, justizia operadoreak, segurtasun indar eta kidegoak eta osasun arloa funtsean ibilbide hori osatzen duten erakundeak dira, *Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktima diren emakumeentzako laguntza hobetzeko tokiko protokoloak eta neurriak hartzeko ereduak* gidak jasotzen duenez. 2006an Emakunde EAEko tratu txarrei dagozkien gizarte zerbitzuen ebaluazioaren txostenaren arabera³⁰, tokiko koordinazio prozesuei dagokienez: "Bestalde, haietan Osakidetza bezalako erakundeak sartu behar dira, orain arte neurri handi batean tokiko eremuko koordinazio foro gehienetatik kanpo geratu baitira" (151. or.).

Era berean, *EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako IV. Planak* honakoa adierazten du: "Osasunaren eremutik emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko egin daitekeen ekarpenik garrantzitsuenak etxeko tratu txarren biktimei laguntza koordinatu eta eraginkorra ematea da".

Hori dela eta, Lan-taldeak honakoa gomendatzen du:

(50. gom.)

Erakundeen arteko Hitzarmena sinatu duten autonomia esparruko erakundeek parte hartzeko daukaten engaiamenduaren, eta erakunde horiek eurek tokiko protokoloak prestatzeko prozesuetan daukaten engaiamenduaren arteko elkarrekotasuna ezartzea, batez ere Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari atxikitako Osakidetzari dagokionez.

³⁰ Emakunde, Erakundeen erantzuna etxeko tratu txarren aurka EAEko gizarte zerbitzuen eremuan, 2006: Sarrerako atea. Gizarte Zerbitzuen ebaluazioa Etxeko Tratu Txarren kontuetan, 2006. <http://www.emakunde.es>

B.4.3. Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren jardura eta koordinazioa

Arestian aipatu legez, BGIBk hasi zenetik burutzen duen jardueraren esparruan, urtero foru erakundetik eta tokiko erakundeetatik indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntzarako ipinitako zerbitzuei buruzko informazioa, eta haiek emandako laguntza kopuruei buruzko datuak biltzen dira. Jardura horren emaitza urteroko txosten bi dira: batek aipatu baliabideak katalogatzen ditu; bestea estatistikoa da eta gizarte, polizia eta justizia eremuetan lagundutako kasuen kopuruak biltzen ditu.

Gainera, Behatokiak, bere webgunean, Baliabide Mapa dauka, eta bertan Lurraldeko udal bakoitzean eskuragarri dauden baliabideei buruzko informazio eguneratua ematen du, izan gizartekoak -eta foru edo udalen titulartasunekoak-, poliziakoak, justiziakoak, osasunekoak edo elkartearen eremukoak. Era berean, erakunde bakoitzak berdintasun edota indarkeria kontuei buruz egindako planetarako sarbidea ematen da. Mapa, hainbat iturritatik emandako informazioa batuz, lurraldeko eremuan dauden baliabideei buruzko agiri homoginoa eta biktima diren emakumeentzako laguntzan diharduten erakundearen zerbitzurako lan tresna da.

(51. gom.)

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia osatzen duten erakundeek haren eta haren jokabide esparruan paratutako tresnen hedapena bizkortzea, hala nola Baliabide Maparena, lurralde mailan eskuragarri dauden baliabideei buruzko agiri homoginoa eta Lurraldean indarkeriaren biktima diren emakumeen laguntzan diharduten erakundearen zerbitzurako lan tresna erabilgarria baita.

Bestalde, bere ibilbidean, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak berdintasun eta emakumeen aurkako indarkeria kontuetan esku hartzeko informazioa eta tresnak hedatzeko ahalmena lortu du. Bere webgunea izatea, Bizkaiko genero indarkeriaren eremuko Baliabide Mapa prestatzea eta mantentzea edo hedapenerako Aldizkaria, prestatutako beste baliabide batzuen artean, oso egokiak dira protokoloen eta koordinazio ekimenen ezarpena ezagutarazteko. Ikuspegi horretatik, Lan-taldeak honakoak gomendatzen ditu:

(52. gom.)

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren prestutasuna ziurtatzea, dauzkan baliabideen bitartez, berdintasun eta emakumeen aurkako indarkeria kontuetako protokoloen eta koordinazio ekimenen ezarpenari buruzko informazioaren hedapena bizkortzeko.

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntzan diharduten erakundeen eta elkarten eremuko erakundeen ordezkariak batzen ditu. Adar bien arteko bilgunean dauden baliabideei, laguntza sarearen funtzionalitateari eta autonomia zein tokiko esparruan ezarritako koordinazio prozedurei buruzko hausnarketa kritikorako esparru egokia sortzen denez gero, Lan-taldeak honakoa gomendatzen du:

(53. gom.)

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren prestutasuna adieraztea bere baitan, elkarten eta erakundeen eremuetako ordezkariaren topaketaren ondorioz, laguntza sarearen funtzionaltasunari eta indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntzarako ezarritako koordinazio prozedurei buruz sortutako hausnarketei forma emateko; eta hausnarketok dagokion organoari helaraztea.

C MULTZOA. GOMENDIOEN LABURPENA

PREBENTZIOARI BURUZKO GOMENDIOAK

Bizkaiko Foru Aldundiaren jardueran genero ikuspegia sartzeko barneko prozesuetan aurrera egitea –horretarako diseinatutako tresnak ezarriz-, foru jokabidearen helburu den emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ezartzearen alde egingo duen baliabide gisa.

Berdintasunerako Foru Planaren Sail arteko Jarraipen Batzordearekin batera, sail bakoitzak berdintasunerako jokabideak garatzeko batzordearen baitan urtero egiten dituen programa operatiboetan **emakumeen aurkako indarkeriari lotutako ekintzak sartzea ikertzea**.

Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunerako eta Genero Politikei buruzko 2004-2007 Foru Plana ordezkaturako duen **hurrengo Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunerako eta Genero Politikei buruzko Foru Planaren sorkuntzan eta diseinuan emakumeen aurkako indarkeria ardatzetako bat izatea**.

"Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Foro"an sartutako emakume elkarteen **ahalmena baloratzea eta indartzea**, indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntza sarerako zubi gisa, foro horretako lan dinamikaren esparruan, elkarte horiek hartzaile izango dituzten sentsibilizazio eta informazio ekintzen bidez.

BGIBren webgunearen bidez, EAEko esparruan emakumearen aurkako indarkeriaren prebentzioari begira **komunikabideei** dagokienez garatutako **tresnak** hedatzea.

BGIBren bidez EAE mailan **hezkuntza eremuan** aplikatu beharreko emakumeen aurkako indarkeriaren **prebentzio** kontuetako **jokabideak, kontsulta materialak, etab.**

Emakumeen aurkako etxeko tratu txarren prebentzio eta laguntza kontuetako **jokabide onei lotutako txostenen eta ikerketen prestaketa bultzatzea** eta **BGIBen webgunearen bidez** holako lanak hedatzea.

Indarkeriaren biktima diren emakumei laguntzeko sareen sentsibilizazioa bilatzen duten **ekintzak** (kanpaina dibulgatzaileak, etab.) **burutzea**, mota horretako egoerak ezagututa, holako emakumei laguntza eraikitzailea eman ahal diezaieten. Landa eremuan holako neurriek garrantzi oso handia izan dezakete.

LAGUNTZARI BURUZKO GOMENDIOAK

Indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko gizarte zerbitzuen hobekuntzari buruz

Bizkaian bizi diren emakume guztiei haiek erabiltzea ahalbidetuko dien **lurraldeko babes baliabideetako sarea eraikitzea**.

Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza psikologikoko zerbitzuak deszentralizatzeko prozesuarekin jarraitzea hartara iristea errazagoa izateko eta joan-etorriek daukaten disuasio-ondorioagatik biktimak laguntza zirkuitutik ateratzea saihesteko.

Ahalik eta lasterren, etxeko tratu txarren biktima izan diren eta era askotako gizarte arazoei lotutako premia bereziak dauzkaten emakumeentzako **berreskurapen eta gizarteratze zentroa diseinatzeari, sortzeari eta abiarazteari heltzea**, etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako babes baliabideak arautzen dituen irailaren 11ko 148/2007 Dekretuan jaso legez.

Talde berezien baliabideetarako heltze eta erabilera diferentziala aztertuko duten ikerketak egitea, desbideratzeari dagokionez dauden balizko joerak ere ikertuz, eta definitutako taldeek egiten duten erabilera berezia azalduz

Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntza zerbitzuen iraunkortasuna eta egonkortasuna bermatzea, horretarako behar diren baliabide materialez eta giza baliabidez hornituz.

Indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko baliabideen eta prozeduren hedapen kanpainen eraginkortasuna ebaluatzea, herritarrengan orokorrean eta biktimengan eurengan daukaten eragina ezagutzeko; horretarako, publizitate kanpainen plangintzan haien ebaluazioa ere sartu beharko da.

Erabiltzaileen eta zerbitzua ematen duten profesionalen **asetze maila ezagutzeko bideak ezartzea**, tresnen eta prozeduren homogeneizatzearen ikuspegitik.

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu bilketaren hobekuntzari buruz

EAEko Etxeko Tratu Txarren eta Sexu Erasoen Biktimia diren Emakumeei Laguntzeko Erakundeen arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak adostutako **"Emakumeen aurkako indarkeria. Terminologiari buruzko proposamenak"** agiria gehiago zabaltzea.

Aholkurako bidea ezartzea gizarte zerbitzuetako profesionalak EAEko Etxeko Tratu Txarren eta Sexu Erasoen Biktimia diren Emakumeei Laguntzeko Erakundeen arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak adostutako "Emakumeen aurkako indarkeria. Terminologiari buruzko proposamenak" agiriaren erabilera praktikotik eratorritako **interpretazio zalantzak eraman eta argitu ahal izateko**.

"Emakumeen aurkako indarkeria. Terminologiari buruzko proposamenak" agiriaren edukia aberastea, **adibide praktikoak sartuz** –egindako galderetatik eta agertutako zalantzetatik atera litezke-, emakumeen aurkako indarkeria kasuak sailkatzeko eta zenbatzeko lana errazteko.

Etxeko indarkeriaren biktimia diren emakumeen zenbaketa erakundeek kudeatutako gizarte programa bakoitzean sartzea gizarte zerbitzuen eremuan egin beharreko datuen erregistro lanaren baitan, eta informazio hori zentralizatuko duten euskarriak ezartzea.

Erakunde guztiak engaiatzea gizarte zerbitzuen eremuan lan egiten duten haien profesionalak, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan derrigorrez bete behar denez, etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktimia diren emakumeentzako laguntza hobetzeko Erakundeen arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak onartutako *Etxeko tratu txarrei eta sexu indarkeriari buruzko informazioa biltzeko gizarte zerbitzuentzako eredu*a ezagut eta erabil dezaten agintzeko.

Datuak erregistratzeko eta informazioa gordetzeko –urteko memoriak, programei buruzko txostenak, etab.- **sistema informatikoak** aipatu "Etxeko tratu txarrei eta sexu indarkeriari buruzko informazioa biltzeko gizarte zerbitzuentzako eredu"n jasotako informazio eremuen arabera **hobetzea**, ereduak biktimari, erasotzaileari eta tratu txarren ezaugarriari buruzko datu sorta zabala jasotzen baitu.

Gizarte zerbitzuen eremuko erakundeek bil ditzaketen datuak partekatzea, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behaketak berak zentralizatuta kudeatzen duen "Lurraldeko datu bilketako fitxa" bezalako tresna estandarizatuak erabiliz, datuok ustiatzea ahalbidetzeko.

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak zentralizatuta kudeatzen duen "**Lurraldeko datu bilketako fitxa**" **hobetzea** honakoak gehituz:

- A. Kontzeptuei buruzko azalpenak.
- B. Honakoei buruzko erregistro eremu berriak:
 - biktimen ezaugarri soziodemografikoak (adina, nazionalitatea, arazo gehigarriak...), profilak eta dauzkaten premiak aztertu ahal izateko.
 - erasotzailearen ezaugarriak.
 - gizarte eremuan egindako bestelako izapidetzeak (adib.: laguntza ekonomikoen izapidetzeak, etxebizitzakoak, etab.)

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak dauzkan hedapen eta komunikazio baliabideak – webgunea, Informazio aldizkariak, posta elektronikoa, idazkaritza teknikoak, etab.- honakoetarako **baliatzea**:

- datu bilketako tresnak eta prozesuak, kontzeptuak argitzeko agiriak, etab. hedatzeko.
- emakumeen aurkako indarkeriari buruzko agiri terminologikoak prestatzeko burutzen diren ekimenak hedatzeko
- erakunde informatzaileen datu zenbaketa prozesuan sor daitezkeen zalantzak bideratzeko edo argitzeko.

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak burutzen duen **datu bilketan** urteroko maiztasunetik seihileko maiztasunera **aurrera egitea**, egoeraren aldaketa nagusiari buruzko informazio eguneratuagoa eman ahal izateko.

Bizkaiko Lurralde Historikoko **emakumeen aurkako indarkeria egoerentzako laguntzari buruz prestatutako informazioa zabaltzea** hari tokiko poliziek horretaz izandako jarduerari buruzko datuak sartuz.

Bizkaian indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntzan lan egiten duten **elkarteen jardueratik ateratako datuak ikusaraztea**, datuok BGIBk prestatzen duen informazioan sartuz, egun laguntza instituzionalaren datuetan oinarritzen baita

Profesionalak emakumeen aurkako indarkeriari buruz prestatzeari buruz

Herri Erakundeek sustatutako **lan publikoaren eskaintzetan sartutako plazen deialdi guztietako gai-zerrendetan** aukera berdintasunari eta genero politikari buruzko gaiak sartzea.

Herri erakundeek sustatutako **lan publikoaren eskaintzetan sartutako plazen deialdi guztietako gai-zerrendetan**, etxean indarkeria jasan duten emakumeei laguntza ematen lan egitearekin zerikusia duten espezialitateetan, honako aspektu hauei buruzko gaiak sartu: lege arlokoak, judizialak, osasun arlokoak, psikologikoak eta/edo sozialak. Gai hauetan, **kasu bakoitzean behar den sakontasuna eta espezialitatea eskatuko da**; eta beharrezkoa denean, gaiari buruzko prestakuntza edota esperientzia eskakizun bereziekin osatzea.

Administratziotik tratu txarren biktimentzako laguntza kontuetan zerbitzuak ematen dizkieten enpresa edo erakundeei horretarako definituta leudekeen prestakuntza eta esperientzia eskakizunak betetzeko eta egiaztatzeko eskatzea, programa emango duten langileei dagokienez.

Horrela, prestazioa kontratu publikoaren esleipenaren formula pean gauzatu, zein lankidetzaren hitzarmen bat izenpetuz, edo dirulaguntzaren bat emanez burutu, administrazioak, zerbitzuari atxikitako profesionalak frogatu beharreko titulu eskakizunekin batera, bakoitzean frogatu beharreko prestakuntza gaiak eta gutxienezko orduak, eta lan esperientzia bezala eskatutako arloak eta denbora definituko ditu.

Bestalde, administrazioak zerbitzua emango duen erakunde edo enpresari talde profesionala osatzen dutenen **ordezkapena edo aldaketa egin** behar den bakoitzean, aldaketa hori behar bezala jakinarazteko eta alde zuzenetik, dagokion "curriculum vitae"ren bitartez proposatutako pertsonen eskakizunak betetzen dituztela frogatzeko eskatuko dio.

Erakunde bakoitzean eremu bakoitzeko prestakuntza premiak jasoko dituen **urteko Prestakuntza Planak prestatzea**, eta haien diseinuak premiei eraginkortasunez erantzutea. Plan horien barruan, helburuak, edukiak eta hartu dituzten pertsonen eskuratutako ikasketen maila betetzeari dagokionez, emandako ikastaroen, prestakuntza ekintzen eta prestatzaileen ebaluazio planok bultzatzea eta orokortzea, eskaintza hobetu ahal izateko, bai arloei eta gaiei zein irakasleei dagokienez.

Prestakuntza planen hartzaileen artean indarkeriaren biktima diren emakumeak haien azken erabiltzaileak guztiz edo zati batean diren taldeentzako **laguntza programak kudeatzen edo zerbitzu zuzenak ematen dituzten pertsonak sartzea**.

Prestakuntza profesionalari ez ezik politikariari eta zerbitzuen kudeatzaileei ere zabaltzea, kasu bakoitzean egoki irizten zaion sakontasun mailarekin.

Anbizio handiagoko prestakuntza ekimenei heltzeko erakundeen arteko koordinazioa indartzea.

Erakundeen arteko koordinazioa indartzea ezagutza trukea sustatzeko. Horretarako foro moduko tresnak izatea eremu instituzional orotako profesionalek elkarri zalantzak eta kasuak argitu ahal izateko.

Kasu praktikoak eta jokabide onak dauzkaten **prestakuntza materialak sortzea eta hedatzea.**

Prestakuntza eta informazioa uztartzea. Prestakuntza jardueren diseinua dagoen baliabide sarea, lege berrikuntzak, genero indarkeria kontuetako esku-hartzearen lanbide eremua osatzen duten pertsonak hedatzeko, elkarteak ezagutzeko, etab. baliatzea.

Materialak berritzea: bideoak, audioa, material idatzia, irudiak, web agiriak, etab. erabiltzea.

Online prestakuntza eta zuzeneko uztartzea. Online prestakuntzak denbora optimizatzen du, baina zuzeneko prestakuntzak informazio eta esperientzia trukaketa azkar eta sakonagoa ahalbidetzen du, eta itunak eta sareak ezartzea errazten du; beraz, eredu biak uztartzeak prestakuntzaren ahalmena areagotzen du.

Emakumeen aurkako indarkeria kontuetako erakundeen arteko koordinazioari buruz

EAEen indarkeria kontuetan dauden programen eta baliabideen ebaluazioari etxeko tratu txarren edota sexu erasoen biktima diren emakumeei laguntzeko baliabide espezializatuen balizko gabeziak ezagutzeko **sistema iraunkorra iriztea**, ezagutza horretatik baliabideak, arlo guztietan –nagusienak gizarte, justizia, polizia eta osasun arloak izanik-, eskuragarri egon daitezen ziurtatzeko joka dadin, eta dagoeneko daudenen jarraipenean lan egin dadin.

Etxeko tratu txarren edota sexu erasoen biktima diren emakumeak lehen unean jaso litzaketen erakundeek eskuragarri dauden baliabideei buruzko informazio homogoneoa eta etengabe eguneratua izatea; eta prestakuntza ekintzak egiteko, dibulgazio materialak prestatzeko eta haiek etengabe eguneratzeko eta zabaltzeko premia indartzea

Berdintasun eta emakumeen aurkako indarkeria kontuetan berariazko ezagutzak dauzkaten **Gizarte Laneko profesionalak** gizarte zerbitzuetakoak ez diren bestelako eremu instituzionaletan eta biktimengana zuzenean iristeko eremuetan egoteko **premia aintzat hartzea**.

Koordinazio tresnak hobetzea, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, laguntzan diharduten erakundeek kasu bakoitzean hartutako neurriei buruzko informazioa bilduko duen; erakundeoi informazio hori partitzen utziko dien; eta arazoaren neurria emango duen estatistika erabilera ahalbidetuko duen **datuen erregistroa sortuz**.

Sistemaren **disfuntzioen trataerarako erakundeen arteko koordinazioa** egun dauden bideen edo horretarako eraiki litezkeen bidez **indartzea**, haiek ebaluatzeko proposamena ezartzea aintzat hartuz, haien identifikazioa eta haiek agertzea dakarten eragileen bilaketa, konponbide proposamena eta biktimentzako laguntza prozesuan parte hartzen duten eragileen arteko hedapena eraginkorrak eginez.

Biktimaren konfidentzialtasuna bermatzea dagokion informazio pertsonala era pribatuan gordez; erakundeek sortzen dituzten eta prozesuan parte hartzen duten txostenen ibilbidea ikertzea, biktima aurkitzeko bidea ematen duten datuak erasotzailearentzat prozesuak iraun bitartean, edo ondoren, eskuragarriak ez direla ziurtatzeko; eta dagokien erakundeek horri buruz adostutako neurrien jarraipena egitea.

Elkarrizketa edo koordinazio mahaietan biktima taldeak aintzat hartzea, edo sistemaren funtzionaltasunari buruz daukaten ezagutza ezagutzea, baloratzea eta erabiltzea ahalbidetuko duten mekanismoak bideratzea, protokoloetan jasotako esku-hartzeen eraginkortasuna egokitze eta hobetzeko elementu bezala.

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea (62. art.) betez, **tokiko erakundeek euren lurralde esparruan**, esparru orokorreko hitzarmenak eta protokoloak garatu, zehaztu eta euren errealitateetara egokituko dituzten **elkarlan hitzarmenak eta jokabide protokoloak hartzea sustatzea**.

Eudelek Emakunderen laguntzaz prestatutako ***Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktima diren emakumeentzako laguntza hobetzeko tokiko protokoloak eta neurriak hartzeko eredu*** ***gida erreferentzia hartzea*** tokiko esparruko protokoloak prestatzen laguntzeko.

EAEn tokiko protokoloen prestaketa bultzatzeko eta laguntzeko ezarritako lan ildoei (Berdinsarearen baitako lan batzordeak, helburu horretarako tresnen prestaketa eta hedapena) **jarraikortasuna ematea**; eta abian dauden prozesuen jarraipena bizkortzea arlo horretan lortutako aurrerapenak ezagutzeko.

Erakundeen arteko Hitzarmena sinatu duten autonomia esparruko **erakundeek parte hartzeko daukaten engaiamenduaren, eta erakunde horiek eurek tokiko protokoloak prestatzeko prozesuetan daukaten engaiamenduaren arteko elkarrekikotasuna ezartzea**, batez ere Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari atxikitako Osakidetzaari dagokionez.

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia osatzen duten erakundeek haren eta haren jokabide esparruan paratutako tresnen hedapena bizkortzea, hala nola Baliabide Maparena, lurralde mailan eskuragarri dauden baliabideei buruzko agiri homogeneoa eta Lurraldean indarkeriaren biktima diren emakumeen laguntzan diharduten erakundeen zerbitzurako lan tresna erabilgarria baita.

Bizkaiko Genero Indarkeriaren **Behatokiaren prestutasuna ziurtatzea**, dauzkan baliabideen bitartez, berdintasun eta emakumeen aurkako indarkeria kontuetako protokoloen eta koordinazio ekimenen ezarpenari buruzko informazioaren hedapena bizkortzeko.

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren prestutasuna adieraztea bere baitan, elkarleen eta erakundeen eremuetako ordezkariaren topaketaren ondorioz, laguntza sarearen funtzionaltasunari eta indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntzarako ezarritako koordinazio prozedurei buruz **sortutako hausnarketei forma emateko**; eta hausnarketok dagokion organoari helaraztea.

Erreferentzia bibliografikoak

- ARARTEKO (2003), *Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn: Arartekoak Eusko Legebiltzarrari egindako txosten berezia*. Gasteiz.
- ETXEKO TRATU TXARREN ETA SEXU ERASOEN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO LAGUNTZA HOBETZEKO ERAKUNDEEN ARTEKO HITZARMENAREN JARRAIPEN BATZORDEA, "Etxeko tratu txarren biktimeentzako babes eta etxebizitza baliabideak hobetzeko programa (2004-2005)". Hemen eskuragarri: <<http://www.emakunde.es>>.
- , "Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktimen zerbitzu publikoetan zerbitzu profesionalak emateko espezializazio premiari buruzko hitzarmena". Hemen eskuragarri: <<http://www.emakunde.es>>.
- , "Emakumeen aurkako indarkeria. Terminologia proposamenak". Hemen eskuragarri: <<http://www.emakunde.es>>.
- , "Etxeko tratu txarren biktimea diren emakumeentzako segurtasun plana (2001-2004)". Hemen eskuragarri: <<http://www.emakunde.es>>.
- EMAKUME ETA GAZTERIA BATZORDEA (EUSKO LEGEBILTZARRA) (2008), "Genero indarkeria jasaten duten emakumeentzako laguntzari buruzko ebazpena". Hemen eskuragarri: <<http://www.parlamento.euskadi.net>>.
- 148/2007 DEKRETUA, etxeko tratu txarren biktimea den emakumearentzako babes baliabideak arautzen dituena. EHAA 187 2007/09/27
- BIZKAIKO FORU ALDUNDIA (2000), *Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eta genero politiketarako Foru plana*.
- (2003), "Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eta genero politiketarako Foru plana berresteko hitzarmena".
- (2006), *Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria. Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako ikerketa baten emaitzak*, Bilbo.
- (2006), *Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriari buruzko sentsibilizaziorako erakundeen kanpainen optimizazioa*.
- ECHEBURUA, ENRIQUE eta CORRAL, PAZ DEL (1998) *Manual de violencia familiar*, Siglo XXI de España Editores, Madril.

EMAKUNDE, "Emakumeen aurkako indarkeria (2008ko ekainean eguneratua)". Disponible en <http://www.emakunde.es>.

--- (2006), *EAEko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako IV. plana, VIII. legealdiko jarraibideak*. Gasteiz.

--- (ed.) (2001), *Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktima diren emakumeentzako laguntza hobetzeko erakundeen arteko hitzarmena*. Gasteiz.

--- (ed.) (2006), *Gizarte zerbitzuetako profesionalek etxeko tratu txarren eta sexu erasoen artean jokatzeko gida*. Gasteiz.

--- (2007), "Erakundeen erantzuna etxeko tratu txarren aurka EAEko gizarte zerbitzuen eremuan, 2006: Sarrerako atea" txostena. Hemen eskuragarri: <<http://www.emakunde.es>>.

EUDEL (2006), *Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktima diren emakumeentzako laguntza hobetzeko tokiko protokoloak eta neurriak hartzeko eredu en gida*. Hemen eskuragarri: <<http://www.eudel.es>>.

--- eta EMAKUNDE, "Berdinsarea- berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako berdintasunerako euskal udal sarearen oinarritzko agiria". Hemen eskuragarri: <<http://www.eudel.es>>.

ESPAINIAKO GOBERNUA, BERDINTASUN MINISTERIOA (2008), "Evaluación de la aplicación de la Ley Orgánica 1/2004 de 28 de diciembre, de medidas de protección integral contra la violencia de género" txostena. Hemen eskuragarri: <<http://www.migualdad.es>>.

Emakumearen aurkako Indarkeriaren Estatu Behatokiaren urteko txostena (2007). Hemen eskuragarri: <<http://www.migualdad.es>>.

Otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako. *EHA 2005/03/02*.

Abenduaren 28ko 1/2005 Lege Organikoa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osoari buruzkoa. *BOE 2004/12/29*.

Martxoaren 22ko 72007 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako. *BOE 07/03/23*.

Urriaren 18ko 5/1996 Legea, gizarte zerbitzuei buruzkoa. *EHA 1996/11/12*.

NAZIO BATUAK (1993), "Convención sobre la eliminación de todas las formas de discriminación contra la mujer". Hemen eskuragarri: <<http://www.un.org>>.

BIZKAIKO GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIA, "Genero indarkeriaren egoerari erantzunei buruzko zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan. Gizarte, Polizia eta Justizia Babeseko eremuak (2006)". Hemen eskuragarri: <http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero_Indarkeria/eu_dokumentuak.html>.

--- "Genero indarkeriaren egoerari erantzunei buruzko zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan. Gizarte, Polizia eta Justizia Babeseko eremuak (2007)". Hemen eskuragarri: <http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero_Indarkeria/eu_dokumentuak.html>.

---, "Laguntza juridikoa, laguntza psikologikoa, familietan esku-hartze espezializatua eta babesa etxean indarkeria jasaten duten emakumeentzat Bizkaiko Lurralde Historikoan (2008)". Hemen eskuragarri: <http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero_Indarkeria/eu_dokumentuak.html>.

2006ko urriaren 4ko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailburuordearen Agindua, genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako etxebizitza kontuetako ekintza positiboetarako buruzko neurriak buruzkoa. *EHA* 2006/10/11.

Ekainaren 30eko 3.548/2000 Foru Agindua, Bizkaiko emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunerako eta genero politiketarako Foru Planaren sailen arteko jarraipen batzordea arautzen duena. *BAO* 2000/07/27.

Maiatzaren 18ko Lehendakari Idazkari Nagusiaren 386/2006 Foru Agindua, Bizkaiko Foru Aldundiaren funtsezko prozesuetan genero ikuspegia sartzeko protokoloak onartzen dituena.

Plan Nacional de Sensibilización y Prevención de la Violencia de Género 2007-2008. Hemen eskuragarri: <<http://www.migualdad.es>>.

Plan estratégico de Igualdad de Oportunidades (2008-2011). Hemen eskuragarri: <<http://www.migualdad.es>>.

Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, unibertsitateko irakaskuntza ofizialaren ordenamendua ezartzen duena. *BOE*, 260. zkia., 2007/10/30.

ERANSKINA
Prozesuaren kronologia (2008)

URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
10	8 29	14	15 29	27	18	18		19	03	07 14	15

Osoko bilkurak:

2008ko urtarrilaren 10eko bilkura

⇒ Behatokiaren osoko bilkurak Adierazleei buruzko Lan-taldeari "Bizkaiko genero indarkeriaren eremuan eragiten duten zerbitzu eta prestazio eskaintzan hobekuntzak bultzatzeko gomendioak eta proposamenak" egiteko eskatzen dio.

2008ko abenduaren 15eko bilkura

⇒ "Bizkaiko Lurralde Historikoan, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko erakunde-jarduera hobetzeko gomendioak eta proposamenak" agiriaren zirriborroa aurkeztu da Behatokiko Osoko Bilkuran. Adierazleen Lan Taldeak egin du zirriborroa. Horrez gain, erabaki da, agiria onartu aurretik, Osoko Bilkura osatzen duten erakundeek alegazioak aurkezteko epea bat zabaltzea.

Lan-taldearen bilkurak:

2008ko otsailaren 8ko bilkura

⇒ Gomendioak egiteko erduei buruzko proposamenaren prestaketa

2008ko otsailaren 29ko bilkura

⇒ "Erakundeen erantzuna etxeko tratu txarren aurka EAeko gizarte zerbitzuen eremuan, 2006: Sarrerako atea. Gizarte zerbitzuen ebaluazioa emakumeen aurkako etxeko tratu txarrei dagokienez" (Gomendioei buruzko atala).

⇒ Gomendioak prestatzeko kontzeptuzko eskemaren zehaztapena.

⇒ "Indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntzarako gizarte zerbitzuak hobetzeko gomendioak formulatzeko gogoeta arloak" (Gomendioei buruzko 1. agiria) agiriaren i zirriborroaren planteamendua

2008ko martxoaren 14ko bilkura

⇒ "Indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntzarako gizarte zerbitzuak hobetzeko gomendioak formulatzeko gogoeta arloak" agiriaren i zirriborroaren azterketa eta ekarpenak. (Gomendioei buruzko 1. agiria)

⇒ "Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu bilketa hobetzeko gomendioak formulatzeko gogoeta arloak" agiriaren i zirriborroaren planteamendua. (Gomendioei buruzko 2. agiria).

2008ko apirilaren 15eko bilkura

⇒ "Indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntzarako gizarte zerbitzuak hobetzeko gomendioak formulatzeko gogoeta arloak" agiriaren ii zirriborroaren onarpena. (Gomendioei buruzko 1. agiria)

⇒ "Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu bilketa hobetzeko gomendioak formulatzeko gogoeta arloak" agiriaren i zirriborroaren azterketa eta ekarpenak. (Gomendioei buruzko 2. agiria).

2008ko apirilaren 29ko bilkura

⇒ "Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu bilketa hobetzeko gomendioak formulatzeko gogoeta arloak" agiriaren ii zirriborroaren onarpena. (Gomendioei buruzko 2. agiria).

⇒ "Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari buruzko gomendioak formulatzeko gogoeta arloak" agiriaren i zirriborroaren planteamendua. (Dokumentazio zatia) (Gomendioei buruzko 3. agiria).

2008ko maiatzaren 27ko bilkura

⇒ "Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari buruzko gomendioak formulatzeko gogoeta arloak" agiriaren i zirriborroaren planteamendua eta azterketa. (Gomendioak proposatzeko zatia) (Gomendioei buruzko 3. agiria).

2008ko ekainaren 18ko bilkura

⇒ "Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari buruzko gomendioak formulatzeko gogoeta arloak" agiriaren ii zirriborroaren onarpena (Gomendioei buruzko 3. agiria).

⇒ "Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko prestakuntzarako gomendioak formulatzeko gogoeta arloak" agiriaren i zirriborroaren planteamendua eta azterketa (Gomendioei buruzko 4. agiria).

2008ko uztailaren 18ko bilkura

⇒ "Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko prestakuntzarako gomendioak formulatzeko gogoeta arloak" agiriaren ii zirriborroaren onarpena. (Gomendioei buruzko 4. agiria).

2008ko irailaren 19ko bilkura

⇒ "Emakumeen aurkako indarkeria kontuetarako erakundeen arteko koordinaziorako gomendioak formulatzeko gogoeta arloak" agiriaren i zirriborroaren planteamendua eta azterketa. (Gomendioei buruzko 5. agiria).

2008ko urriaren 3ko bilkura

⇒ "Emakumeen aurkako indarkeria kontuetarako erakundeen arteko koordinaziorako gomendioak formulatzeko gogoeta arloak" agiriaren i zirriborroaren azterketa. (Gomendioei buruzko 5. agiria).

⇒ "Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako indarkeria kontuetako erakundeen jokabidea hobetzeko gomendioak eta proposamenak" agiriaren i zirriborroaren planteamendua (Azken Txostena)

2008ko azaroaren 7ko bilkura

⇒ Emakumeen aurkako indarkeria kontuetarako erakundeen arteko koordinaziorako gomendioak formulatzeko gogoeta arloak" agiriaren ii zirriborroaren onarpena. (Gomendioei buruzko 5. agiria).

⇒ "Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako indarkeria kontuetako erakundeen jokabidea hobetzeko gomendioak eta proposamenak" agiriaren i zirriborroaren berrikusketa (Azken Txostena).

2008ko azaroaren 14ko bilkura

⇒ "Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako indarkeria kontuetako erakundeen jokabidea hobetzeko gomendioak eta proposamenak" agiriaren onarpena (Azken Txostena).